




## Aurten ez da izanen 'EPA ikastarorik'

Gure herriotan urtero mila ikaslelik gora mugiarazten zituen Formakuntza Okupazionala eta Trebakuntza Profesionalerako programak bere azkena jo zuen joan den ikasturtean. Ikastaro eta tematika desberdinak biltzen zituen aipatu programak: *Hizkuntzak* (ingeleza, frantseza), *ikastaro teknikoak* (frutikultura, soldadura, informatika...), *etxeko ekonomia* eta *eskulangintza ikastarolak*.

*Helduen prestakuntza programa desegiteko lehen pausoa izan daiteke*

Orain, ordea, Nafarroako Gobernua goitik-behera aldatu du antolaketa eta planteamendua. Aurten Udala eta Emakume Elkartearen esku dago antolaketa lana eta Nafarroako Emakumearen Institutuak zati bat finantziatzen lagunduko du. 

**18 Lourdes Leitzak irabazi du Kankunerako bidaia**

Merkatarien Elkartera asoziatutako dende zozketatzen zuten saria Doneztebeko CTV Albaitaritza Zentruan saldu zen.

**10 Arrenkurak gasolindegia gaez itxirik daudelako**

**6 Irizia: Gobernuak botikak ordaintzea nahi du**

**3 Baztango Balleko Etxeko ezin konponduak gaindituak direla dio Felix Gonzalezek**

Baztango UPNko burua itxaropentsu dago gobernu berriaren espektatibekin.







*Igantzik bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu*  
**Besta zoriontsuak!**

**GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**



*Igantziko Udalak besta onak opa dizkizue*  
*Igantziar eta bisitari guziei*



## DATUAK.....

❖ Felix Gonzalezek baztandarrak 44 urte ditu eta Lesakako CSI-Transformados lantegian egiten du lan; Erosketa Departamentuko buru da.

❖ Baztan Futbol taldean denetarik egin du: jokalaria, entrenatzaile, lehendakari. Gaur egun Nafarroako Futbol Federazioko partaide da.

❖ Kontzejal gisa estreinatu denetik, haize berriak sartu ditu Baztango UPNn. Udalerrendan bere gibelatik zeuden bi kontzejalek, ordea, dimittitu egin zuten taldearen politika berriarekin ez konforme egoteagatik.

👉 **Felix GONZALEZ URIARTE** Baztango UPNko burua


## “UPNren gobernua hobea izatea espero dut, maila guzietan”

### GOBERNU BERRIA DUGU NAFARROAN. DIFERENTZIARIK NABARITUKO DUGU?

Ez dakit epe labur edo luzean diferentziarik nabaritu ote den Gobernu aldaketarekin. Hoberako izatea espero dut, maila guzietan. Karreterak, bideak, gizarte mailako hobekuntzak... eta gustatuko litzaidake Gobernutik heldu diren diruak hobeki banatzea Baztan-Bidasoan, Zugarramurdi eta Urdazubin. Ez dut erraten hau gobernu berria nire taldekoa delako, UPNkoa; gauza berbera nahiko nuke gobernu berte taldeek osatuko bazuten.

### BAZTANGO UPNRI DAGOKIONEZ, KOIUNTURARI BERRIAK ALDATUKO DU ZERBAITETAN BERE POLITIKA?

Hauteskunde kanpainan erraten nuen Parlamentura UPNk irabaziko zuela, eta Baztanerako interesgarria izanen zela udala ere talde berberak gobernatzea. Beti defenditu dut hori, logikaz errazagoa da gauzak ‘familia’ bereko agintariek negoziatzea eta erabakitzea. Dena den, gobernutik ez litzateke herrien artean bereizkeriarik egin behariko udalaren kolorearengatik. Denen gainetik guziodako on dena



Balleko Etxean ezin konponduak gainditu direla dio Felix Gonzalezek

hartu behar da kontutuan, koloreak eta sinboloak kasurik egin gabe.

### URTEA PASATU DA HAUTESKUNDEETATIK. EGIGUZU BALORAZIO BAT?

Espero baino gauza gehiago pasatu dira. Udal-barnean azken urteotan genituen ezin konponduak gainditu, eta lasaitasuna jende-

ratzen hasi gara. Bertalde, Gobernu Batzordeak dituen 5 partaideetatik 2 UPNkoak izatea eskeini zigun EAK, eta horrekin batera 5 kontzejalia eta berte hainbat ordezkari ere. Gure taldean gaia eztabaidatu eta onartzea erabaki genuen, nahiz eta guretako batzuk ez konforme egon horrekin.

Ez nago sobera konbentzitura udalaren funtzionamenduari administrazioan eta ekonomia mailan. Dirua erraxegi gastatzen dela iduritzen

ritzen zait. Alkatetzatik egoera aztertu eta gastuak neurtu beharko direla iduritzen zait, defizita ez haunditzeko. Laguntzeko prest gaudere gure posibilitadeen arabera. Balleko Etxean laguntzen eta gauzak hobetzen saiatzen gara, ni bederen bai. Gure lanak jendearen onerako izan behar du. Horretarako aukeratu gaituzte. Jende guztiak konformatzea zaila da, baina ulertu behar da gure helburuak arrazionalki jokatuz lortuko ditugula.

❖ *“Ez nago sobera konbentzitura udalaren funtzionamenduari administrazioan eta ekonomia mailan. Dirua erraxegi gastatzen dela iduritzen zait.”*

TESTUA:

JOXEMANUEL IRIGOIEN

ARGAZKIA:

KARMELE TOLOSA



# Aldaketak eta murrizketak ikastaro sozio-kulturaletan

## IKASTAROAK HERRIKA 1996-97

BAZTAN	IKASTAROA	MATRIKULA
Arizkun	Eskulangintza	3.000 Pta.
Elbete	Eskulangintza	3.000 Pta.
Elizondo	Marrazketa Artistikoa	4.000 Pta.
Elizondo	Moble zaharren konpontzea	13.000 Pta.
Erratzu	Jostura	8.000 Pta.
Irurita	Jostura	8.000 Pta.

## BORTZIRIAK

Bera	Geriatría	6.000 Pta.
Bera	Jostura	6.000 Pta.
Bera	Ilapaintze ikastaroa	6.000 Pta.
Etxalar	Eskulangintza	6.000 Pta.
Igantzi	Eskulangintza	4.000 Pta.
Lesaka	Moble zaharren konpontzea	6.000 Pta.
Lesaka	Eskulangintza	6.000 Pta.
Lesaka	Jostura	6.000 Pta.

## LEITZALDEA

Areso	Lore Lehorrak	- Pta.
Goizueta	Eskulangintza	- Pta.
Leitza	Joga	- Pta.
Leitza	Puntu ikastaroa	- Pta.
Leitza	Jantzigintza Industriala	- Pta.

## MALERREKA

Donamaria	(Zehaztu gabe)	- Pta.
Doneztebe	(Zehaztu gabe)	- Pta.
Narbate	(Zehaztu gabe)	- Pta.
Sunbilla	Eskulangintza	- Pta.
Zubieta	Moble zaharren konpontzea	- Pta.
Zubieta	Zeramika	- Pta.

**INFORMAZIO GEHIAGO** herri bakoitzeko udal-bulegoetan  
izena emateko azken egunak:

BAZTAN .....irailaren 20an      LEITZA.....irailaren 27an  
BORTZIRIAK .....urriaren 8a      MALERREKA.....(Zehaztu gabe)

**Aurten ez da 'EPA ikastarorik' izanen. Nafarroako Gobernuak goitik-behera aldatu ditu herriz herri egiten ziren ikastaro hauen antolakuntza eta planteamendua. Berriki arte Hezkuntza Departamentuaren esku zegoena, hemendik aurrera emakume-elkarte eta udalen esku geldituko da nagusiki. Emakumearen Institutuak aurkezten zaizkion proiektuak diruz lagunduko ditu, duten kostoaren % 75a, gehienez ere. Errekonbertsio honek, ordea, hutsune eta murrizketa ugari ekarri ditu berekin. Errate baterako, hainbat udaletan ez da ikastarorik eskeiniko, formakuntza arlo batzuk ez dira diruz lagunduak izanen, ikasle guttiagok izanen dute parte hartzeko aukera, eta jakina, hainbat irakasle lanik gabe gelditu da.**

TESTUA:  
JOXEMANUEL IRIGOIEN  
ARGAZKIA:  
ARTXIBOKOA

**a**urrerantzean, Hezkuntza Departamentuak ez da arduratuko Formakuntza Okupazionala eta Trebakuntza Profesionalerako programaz. «Parte hartzen zuten ikasle guzietatik % 90a emakumeak zirela» erranez arrazoi zuten orain arteko planteamenduaren aldaketa Hezkuntza Departamentuko arduradunek. Hainbat irakasle eta ikasleren ustez, ordea, arrazoi hori «aitzakia bertzerik ez da, aspalditik jakina baitzen ikastaro hauen planteamendua berritu eta

gaurkotu beharra zegoela, eta hori egin beharrean, nahiago izan dute arazoa bertzeren bizkar utzi». Horrela bada, aurtengoz bederen pertsona helduen formakuntza ihardueren zati bat Emakumearen Institutuaren esku utzi du Nafarroako Gobernuak, batez ere ikastaroen finantziazioari dagokionez, (ikastaroek baliu dutenaren % 75a, gehienez ere). Gainerakoa parte-hartzaileek ordaindu behar dute, nahiz eta zenbait kasutan udalek ere diruz lagunduko duten. Hori bai, antolamendua eta kudeatzea udalen eta lega-





Udalak eta legalizatuta dauden Emakume Elkartek izanen dira aurten antolatu diren ordezeko ikastaroen antolatzaile eta kudeatzaileak. Emakumearen Institutuak diruz lagunduko ditu berak markatutako erizpideen barnean sartzen diren neurrian.

lizatuta dauden Emakume Elkarteen esku egonen da oso osorik. Irakasle eta monitoreen lan kontratuak egitea ere, antolatzaileen esku egonen da aurten, eta ez Nafarroako Gobernuarenean.

**Planteamendu berriak**  
'Errekonbertsioak', planteamendu aldaketa nabarmenak ekarri ditu orain arte ezagutzen genituen 'EPA ikastaroekin' konparatuz. Hastekoz, Emakumearen Institututik diruz lagunduko diren aktibidadeak emakumearekin zerikusia dutenak izanen dira, «*eta lehenatasuna izanen dute emakumeen hezkuntza, kultura,*

## Okerrena, helduen prestakuntza programa desegiteko lehen urratsa dela



### Andoni ERRANDONEA

EPA-FOCAP ikastaroen koordinatzailea eskualde mailan azken urteotan

Urte aunitzez gure herrietan hainbat eta hainbat ikasle bildu dituen EPA-FOCAP ikastaroez izan duten aldaketa ez da egokiena izan.

Mugatu dituzte egin daitezkeen ikastaro motak, arrakasta haundia zuten ikastaro teknikorik ezin dira egin, Nafarroako Emakumearen Institutuak diruz laguntzen dituzten, gizonezkoak

ezin dira apuntatu, aintzinetik programatu behar dira eta horren ondorioz, galdu egin dute lehen zuten maldutasuna.

Udalen eskuetan gelditu da erabat ikastaro hauen antolakuntza, eta orain arte lokalak uztea bertzerik egiten ez zutenentzat lan haundiegia bihurtu da, eta denetik okerrera, oraingo hau helduen prestakuntza programa desagertzeko lehen urratsa dela iduritzen zait.

*prestakuntza eta garapen pertsonala lortzea helburu dutenak*». Halaxe adierazi digu Milagros Urzainkik, emakumearen Institutuko arduradunak.

### Finantziarioa

Emakumearen Institutuak, aurkeztu zaizkion proiektuek duten kalidadearen arabera, koste osoaren % 75a finantziatu-

ko du gehienez ere. Milagros Urzainkik adierazi digunez, «*aldez aurretik ez dugu erizpide finkorik. Proiektuak banan-bana aztertzen ditugu eta duten interesaren arabera ematen diegu dirulaguntza edo, zenbaitzutan, ukatu*».

### Ikastaro teknikoak desagertu dira

Momentuz bederen, ikastaro

teknikoak desagertu egin dira. Indarrean dagoen antolakuntza berriaren arabera, «*Lanbide Heziketako ikasketen osagarri gisa izanen dira aurreantzean, batez ere kualifikazio exkaseko gazteei bideratutak*». Orain arte, zaku berberetan sartzen ziren ikastaro sozio-kulturalak eta teknikoak, (informatika eta eskulangintza, errate baterako).■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.300 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa ke  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91  
Internet:  
<http://www.encomix.es/tpi-ttapa>  
e-mail:  
[tpi@encomix.es](mailto:tpi@encomix.es)

uzendaria: Joxemanuel Iri-  
gien. **Publizitatea:** Miren Kar-  
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
Arozena, Joxemanuel Irigoien.  
**Administrazioa:** Amaia Goia.  
**Erredakzio taldea:** Pello Ape-  
txea, Juanas Paul, Kristina Bo-  
n, Bittori Telletxea. **Berri-  
gortzaileak:** Joseba Azpiroz, Este-  
ban Arozena, Juana Mari Saizar,  
Iñigo Arozena, Iñigo Mutuberria, Iban Isasi,  
Iñigo Aldabe, Patxi Otxandore-  
na, Ixabel Maia, Josune Etxe-  
barri, Pablo Mendiburu, Joseba  
Apeztegi, Alizia Olaizola, Mar-  
tzi Etxenike, Koro Irazoki, Mi-  
kela Gerendiain, Jacqueline, Eli-  
zabet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-  
kar Txoperena, Pello Apeztegia,  
Aitor Arozena, Kristina Boan.  
**Elkarlanean:** EHNE Nafa-  
ria, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-  
ra, Joxe Javier Etxeberria, Aran-  
za Zabala...

**Argitaratzaileak:** Graficas Ona.  
ttipi-ttapa ez du bere gain har-  
erik derrigorrez, aldizkarian adie-  
zirik ez duetik erranen eta eritzien eran-  
kizunik.

**Elkarlanean:** Be-  
nito Leizaola, Goizueta, Areso, Baz-  
ter, Urdazubi, Zugarramurdi eta  
Garaio udalak, Bortziritako Eus-  
kara Mankomunitatea, Malerre-  
nako Zerbitzu Mankomunitatea,  
Zugarramurdiko Akelarre Elkar-  
lana...



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Gobernuak botikak ordaintzea nahi du

#### Xaharren diruak ez zituztela ukituko erran zuten, eta begira orain!



Felipe GANBOA  
Arkupeak Elkarteakoa

Azken egunotan telebistan eta pe-  
riodikuetan aunitz mintzatu di-  
ra gauza hauetaz. Niri bederen,  
holako gauza bat martxan jar-  
tzea zaila iduritzen zait. Izan ere,  
Seguridade Sozialeko txartelan  
ez baitu paratzen batek edo  
bertzeak zenbat irabazten duen.  
Orduan, erraten dutena kontu-  
tan hartuta, ez dakit nola duten  
pentsatua horren kontrola.  
Jendearen aldetik abusorik ote  
den? Bai, nere ustez aunitzek  
abusatzen dugu. Maiz, behar  
duguna baino botika gehiago  
izaten ditugu etxean, eta ez da  
batere kostatzen gure aldetik  
pixka bat jartzea, beti ere, kan-  
poko mehatxu eta inposiziorik  
gabe. Halere, seguru nago go-  
bernuak badituela, nahi izanez  
gero, bertze aunitz bide osasun  
aferezat dirua biltzeko boti-  
kak kobratzen hasi gabe. Bertze  
gisara solasten badira ere, ez dut  
uste Seguridade Soziala hain de-  
fizitarioa denik hemen.  
Atzerapauso handia izanen zen  
sanidadea pribatizatzen hastea.  
Amerikako Estatu Batuak ejen-  
plu txarra dira. Hemen duguna  
aski poliki dago, eta hori kon-  
tu egin behar dugu.

#### Murrizketa eta pentsatzeko moduen atzerapausoa



Jose A. IRURETAGOIENA  
Medikua. Elizondo

Orain arte dohai-  
nik denaren le-  
kuan errezeta ba-  
koitzeko hoge-  
duro kobratu nahi izateak, mu-  
rrizketa eta pentsatzeko mo-  
duetan atzerapausoa ekar de-  
zake. Eta hori, zenbateraino mu-  
rrizten duen maila eztabaida-  
tzen sartu gabe.  
Erakunde ofizialetan begi onez  
ikusten dira botika-saltzaile eta  
laborategien irabazi eta eteki-  
nak, eta ondorioz, momentu hor-  
tatik arrisku gorria sortzen da.  
Prezio altuak hortxe finkatzen  
dira eta norgehiagoka ugariak  
ez dute aurrerapausorik ekarri-  
ko herritar arruntarentzat.  
Gaur da eguna oraindik egin ga-  
be dagoela botika 'generikoei'  
buruzko egiazko eztabaidarik,  
eta beharbada, hortxe egon li-  
teke jorratu beharko zen bide-  
tako bat.  
Eta ez ditugu ahantzi behar gai-  
tzaren aitzinean izaten diren bel-  
durak, gero, gainera, gastuak  
ere gaineratzeko.

#### Krisiari aurre egiteko diru-sarrerara 'errexak' bilatu dute



Izaskun ARRARAS  
Pentsionista. Areso

Gai honi buruz informazio de-  
xente zabaldu da  
lau haizetara, eta  
gehienbat telebistaz enteratu  
naiz. Errezetei dagokionez,  
jendeak abusatzea izan daite-  
ke, baina seguraski gutxie-  
nak izanen dira horrela joko-  
tzen dutenak. Hala ere gure  
arazoaren soluzioak ez daude  
beti pastilletan.  
Gobernuak krisiari aurre egi-  
teko diru-sarrerara errexak bilatu  
du. Esaten duenez 700 mila  
milioi hartuko lituzke erreze-  
tazoari bidea ematen bazaio.  
Gure gizartea zahartzen ari da  
gero eta gehiago. Beraz, jen-  
dea urte gehiago bizi da, eta  
eraberean, botikaren gastua  
eta erabilera haunditu egin da.  
Gaixotasun kronikoa dutenek  
eta jubilatuek ez ordaintzea  
ongi eta beharrezkoa iduritzen  
zait. Esan behar ere, kartilla  
arrosa eta berdearekin kontrol  
zehatzagoa egiten dela botike-  
tan.  
Azken berria da baina seguro-  
tik kanpo botika gehiago ate-  
ratzea, ez ote da okerrago?

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

#### LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.  
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

#### IRUÑA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta



## BOTA BERTSOA



## Egunero futbola telebistan

Julen ZELAIETA

Doinua: Leiho ertzetan

Zapping egiten hasi orduko ba al dago ezer onik futbol iraultza datorkigu ta ez dauka bertze izenik bainan normala omen da kirol ospetsuena izanik ez nuen pentsatuko nik horrenbesterako zenik nahiz ta futbola kirol errege izan dugun betidanik telebistaren erregea ere bihurtu zaigu jadanik.

Uda guztia partiduekin pasatu genuen zeren Ingalaterran Eurokopakin egunean bi bederen torneoekin bertze hainbertze ikusi arazi arren ni hasia naiz aspertzen besterik ez al da hemen hainbat torneo ta amistoso ikusi eta ondoren liga bukatzen ari zaigula dirudi hasi baino lehen.

**Turismoa, prezioak, masifikazioa...**

LURRA landa-lurraldeari buruzko aldizkariaren 7garren alean Landa Turismoari buruz argitaratutako elkarrizketan, Landa Etxeen ordezkari batek, hauen eta Partzuergoaren interesei buruzko galderari hurrengoa erantzuten dio: "... Kongsortzioak ahal den prezio bajeunak jarri nahi ditu eskaintza hobereena jarri ahal izateko. Guk bere neurriko prezio batzuk nahi genituzke, kongsortzioak, berriz, bisuteriaren prezioak nahi ditu turismoa masifikatzeko, masifikazioak elkar jatea ekartzen du eta gure nortasun kulturalaren kalterako da". Nik, baieztapen honi dagozkion zenbait puntu argitu nahi nuke:

1.- Bertizko Partzuergo Turistikoak ez du zerikusi eta eskusartzerik bazkide bakoitzak bere zerbitzuen prezioa erabakitzeke orduan. Partzuergoko bazkideak dira (Landa Etxe, Hotel, Jatetxe zein edozein zerbitzu) prezioen ezarpena beregain hartzen duten bakarrak. Beraz, eginkizun honetan partzuergoak ez du inolako inposaketa zein gomendiorik eskaintzen.

2.- Partzuergoa ez da bisuteriaren prezioen aldeko ezta masifikazioa gerta dadin ezta ezertarako ere. Hurrena, aipatu bezala, partzuergoa ezpaita prezioen ezarpenaren erantzule. Eta bestalde, prezioa eskaini-

## IRAKURLEAK MINTZO

tako mailaren arabera izatea bailitzateke hobereena: dena den, azken hau bakoitzaren esku dago eta ez partzuergoaren esku.

3.- Partzuergoak burututako ekintzek (ikastaroak...) bazkideen zerbitzua hobetzea izan dute helburutzat, honek suposatzen dituen abantailak probetzeko (bezeroen satisfakzioa lortzeko, zerbitzu onaren arabera prezioa jartzeko aukera izateko...).

4. Orotara Partzuergoko bazkideek 2.497 alojamendu plaza eskeintzen dute, eta bertako bizilagunen kopurua (azken errolda ofiziala: 1-1-95) 22.179koa da. Gaur egun gertatzen ahal den masifikazioari buruz bakoitzak atera ditzala bere konklusioak.

5.- Turismoa eta "masifikazioa" dela, posible da gure nortasun kulturala arriskuan egotea baina arrisku horren erantzukizuna gurea da. Turismoari errua

leporatzeak ez du balio; gure nortasuna egunez egun; urtez urte, mendez mendez osatu da, eta guk eta gure aintzindari eta arbasoen ekintza eta izateko moduek eraldatu dute. Gure esku eta gure atzetik datozenen esku dago nortasun horren norabidea zuzena eta egokia izatea. Aunitzetan besteen zilborra begiratu egiten dugu gurea begiratu baino lehena, eta harriak berteen teilatura bota ere.

6.- Zabaltzen ari diren zenbait baieztapen oinarritzat hartuz badirudi azken bolada hontan turismoa kalte ekarlea besterik ez dela. Turismoak soilik, ez du zonaldea aurrera aterako, baina argi dago garapen ekonomikoaren beso gero eta sendoagoa bilakatzen ari dela. Lanpostu berriak sortzera lagundu du, kili-kolon zeuden hainbat sendotu, eta bere neurrian zenbaiten bizitokia bertan finkatzera lagundu ere, beste gauzen artean.

Gai hauetaz eta beste aunitzetaz hitzegiteko **IHARDU-NALDI** batzuk prestatzen ari dira. Lerro hauen bitartez jende guziari hoietan parte hartzeko gonbidapena luzatzen diot eta baita animatu hauek antolatzeko sortu den lan komisioa osatzeko.

MANOLO LIZARDI  
BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOKO  
GERENTEA



LESAKA



Tel.: 450 133

451 541

Faxa: 450 334

**DONEZTEBE****APARAN, S. A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



**Batzango Gazte Asanblada**

## Irailak 29, Intsumisio Eguna, gazteon erantzuna

Irailaren 29an, Berriozarren, Intsumisio eguna ospatuko da. Aurtengo honetik, inoiz baino garrantzi gehiago du. Aski da kontutan hartzea, iragan maiatzetik martxan dela Zigor Kode berria, eta hor Intsumisioaren eta gizarteko bertze hainbat arazoren aitzinean eramango den politika errepresiboren oinarriak finkatu direla. Horrela, arazo hauei eta bereziki intsumisioaren arazoari behar bezalako irtenbideak eman

**Gure mundu txiki-bizi honetatik, Zigor hau beren ametsik gaiztoena -disidentzia- deusezteko eraiki duten monstroa dela zabaldu nahi dugu lau haizetara**

beharrean, arazo hauek duten oinarri soziala ukatu nahi dute, aterabide gisa zigor neurriak proposatuz, gizartearen eta bereziki gazteriaren eskakizunei gor eginez.

Hau guztia kontutan hartuta, zenbait puntu aztertzea ezinbertzekoa da: Batetik, Zigor Kode berrian, intsumisioaren kasuan, zigor aldaketa bat nabari da. Lehengo espetxe zigorra alde batetara uzten dute, inhabilitazio neurrietara joz. Horrela, errepresioa indibidualizatu nahi dute. Izan ere inhabilitazio neurri hauekin, hainbat lankargu publikoetarako sarrera galeratzen da. Honela bakoitzak bere egoerari, bai oraina nola etorkizunari bakarka aurre egitea nahi dute, kolektibo intsumituaren indarra

zatikatu asmoz. Neurri hauen ondorioz zuzenean, gizarteratze prozesuan intsumituen bazterketa sortzea izanen litzateke, intsumitua sozialki baztertzea. (...)

Bertzalde, Zigor Kode Berria ezinbertzekoa dela sinestarazteko jendeari, botereak baditu 'argudio' erakargarriak: segurtasuna, erosotasuna, bizimodu ona... Argudio horietan eskaintzen diren onurak, ordea, gutxi batzuren esku daudela begibistakoa da, eta talde horretatik kanpo gelditzen direnei, obeditu, 'produzitu', eta kontsumitzera mugatzen den sistema onartzea gelditzen zaie bakarrik.

Sistemak berak sortarazten dituen kontrasteaneie aurre egiteko, sistemak duen modurik bidezkoena errepresioa da, bere baitan dakarrenekin: defentsarako aurrekontuen igotzea, polizi eta kartzela kopurua haunditzea, eta jakina, 'ordena', 'bakea' eta momentuan momentuko 'baloreen' izenean egin daitezkeen edozein gauza justifikatzeko behar bezalako marko juridikoa sortzea. Gure mundu txiki-bizi honetatik, zigor hau beren ametsik gaiztoena -disidentzia- deusezteko eraiki duten monstroa dela zabaldu nahi dugu lau haizetara. Eta honen aitzinean gure jarrerara agertzeko aukera edukiko dugu Berriozarren irailaren 29an. Anima zaitzete eta jakin eskualdetik autobusak antolatuta ditugula.

**Bixente Leizte**

## Banderen borroka eta beste

Asko, gehiegi, hitz egin da hemen eta han Leitzako festetan gertatutako iskanbilaz. Badago bai norbait interesaturik istilu horiek zabal daitezten. Nor ordea? Ez noski Herriko onginahiaren aldeko asmotan dabilenik. Honen atzetik ote dabilta bada Madrilgo komunikabideak edota Iruñeko Eradio Ezpeleta, Javier Goñi, Elena izeneko auskalo zein, etabar, hain gogotsu murgiltzeko Leitzako arazoetan? Ez zaigu iduritzen. Beti ere, 'etxeko sua etxeko hautsaz itzali' behar dela erakusten baitigu esaera zaharrak.

Ondorioak hor daude, salaketa batzuentzat, besteentzat Epaitegiak... Beste giro goxoago batean erabakitzen ziren horrelakoak orain arte gutxi: ni ttikia nintzela, Basakabiko eskoletan jartzen ziren bandera guztiak inguruko baserri bateko behiek jaten zituzten eta ez zen inoiztxo istilurik sortu. Beste behin, Korpus eguneko prozesioan barrenbarrengo 'prendarik' sekretuena erori zitzaion nire aurreko 'señorari' lokarria lasaitu zitzaioleko, oin tartetik atera eta, hantxe joan zen baratzerara. Inortxok ere ez zuen ezer esan. Zer ikustekorik dauka honetik, galdetuko didazue, banderen arazoarekin. Banderen arazoarekin ez baina, gure Alkate jaunari, jasotzen ari den mehatxuengatik, jarri zaion galtzontziloetako kolorearekin asko...

Badira, halere, berri hobeagoak, itxuraz bederen. Joan den ostiralean, irailak 13, bilera berezia egin zen Leitzako Udaletxean. Bertan, Alkate jauna beste ordezkari batzuekin eta

**Ondorioak hor daude; salaketa batzuentzat, besteentzat Epaitegiak... Beste giro goxoago batean erabakitzen ziren horrelakoak orain arte gutxi: ni ttikia nintzela, Basakabiko eskoletan jartzen ziren bandera guztiak inguruko behiek jaten zituzten eta ez zen inoiztxo istilurik sortu.**

Antolin jauna Sarrio lan-tegiaren izenean. Hiru edo bost mila milioitako inbertsioa (hau da batuak jarri digun lana idazkera honekin) egiteko asmotan aurkitzen dela Enpresa. Sarrio osoaren azpiegitura hemen 'kontsolidatzeko' -hau da erabili zuen hitza-, makinak aldatzeko, berriak eraikitzeko, etab. Guzti horretarako Aurre-ra Kirol Elkarteak erabiltzen duen futbol zelaiaren berreskuratzera beharurik dagoela eta, bere egunean Udalarri utzi zionez, lau hilabete baino lehen itzul dakion eskatuz. Eritzi erabat desberdinak jaso ditugu langileen artean. Egia izan daitekeela, hainbeste urtetan pezatarik gastatu gabe eta nondik orain halako interesa, bakarrik papertegi bate-rako aitzakia besterik ez ote den izanen, etab. Ez jakin.



## PRENTSATIK BILDUTAKOAK

## 11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 96-IX-13

«Gehienak txundituta gelditzen dira, txotxongiloak bakarrik dituen antzezpena aspergarria izanen dela uste dutelako ikusi aurretik, eta ez da hala».

**Estefania ERRO**  
Kilimiliklik Zugarramurdiko antzerki taldekoa  
Nafarkaria 96-IX-13

«Ikasle txikientzat leku berria da ikastola, eta horrek hasieran urduritasuna ekarri arren, bigarren egunerako alaitasuna ekarri die. Kontuan hartu behar da, gainera,

orain arte egon diren eraikina zaharra eta txikia zela».

**Erramun MARIARENA**  
Berako Labiaga ikastolako zuzendaria  
Nafarkaria 96-IX-13

«Nafarroan badirudi txapelketa honekin trikitixa pizten hasia dela eta jendea ere motibatzen hasia dela. Urtetik urtera bikote ari dira apuntatzen eta hori seinale ona da»

**Jone ELGORRIAGA eta Izaro ANSA**  
Nafarroako Trikitilari Txapelak  
Nafarkaria 96-IX-20

◆ **Alokatzeko, logela indibidualak edo etxe guztia?**

❖ Logela indibidualak.

◆ **Neskak, ilegorriak edo beltzak?**

❖ Ongi dauden guztiak.

◆ **Badakigu futbolzalea zarela, zein ekipokoa?**

❖ Errealekoa, noski!

◆ **Zein da zuretzat futbolistarik hobereena?**

❖ George Weah, Milanen ari den Liberiarra.

◆ **Aurten, denek dioten bezala, jende guttiago etorri da?**

❖ Hori diote, baina guk berdintsu izan dugu.

◆ **Zer nahiago, herriko bestak ala errefeta?**

❖ Errefeta.

◆ **Gaur eguneko haurrak, mainez galdurik daude?**

❖ Bai, dudarik gabe.

◆ **Hiriko jendea, exijentea izaten da landa etxeetan?**

❖ Ez.

◆ **Mikel Laboa edo Ruper Ordorika?**


❖ Mikel Laboa.

◆ **Zer iduritzen zaizu Estatu Batuek Iraki egindako eraso?**

❖ Clintonen hauteskunde kanpaina.

◆ **Ehiztaria al zara?**

❖ Ez, baina harreman onak ditut ehiztariekin.



**Iñaki OLAGARAI**  
Sueldegia Landa Etxekoa.  
Zugarramurdi



## ROMANO dekorazioak

**PINTURA ETA PAPEREZTATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU**

☛ Zolak jartzen ditugu:

- Kortxoia
- Moketak
- Parketa
- Sintasola

☛ Gure kolokazio tailerra daukagu

☛ Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak  
konpromezurik  
gabe

Legia I • Tel. 631137-630941 • **BERA**



## IGANTZIKO UDALA

*Estobonaga alderdia urbanizatzeko espedientearen hasiera*

Igantziako Udalak, 1996ko irailaren 10ean egindako osoko bilkuran, honako erabakia hartu zuen:

1.- Igantziako Estobonaga alderdiaren exekuzio unitatearen mugaketa, lankidetzaren sistemaren zehazpena eta urbanizazio proiektua hasiera batean onartzea.

2.- Proiektuak jendearean hamabortz eguneko paratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaturik, interesatuek aztertu eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Erabaki hau exekuzio unitateko lurren jabeek eta ukitutakoei jakinaraztea.

*Igantzi, 1996ko irailaren 10ean  
Alkatea*

*Juan J. Txoperena Matxikote*



### GASOLINDEGIEN KOKAPENA



Goian ageri diren zenbait gasolindegitan sistema automatikoak jar-  
tzea pentsatzen hasiak dira. Lesakan ireki berria denak badu siste-  
ma hori

## Gauzez itxita egoten direla eta, arrenkurak

Iruñea-Irun errepidetik ateri gabe, ez dago bat ere 24 orduz irekita

Iruñea-Irun eta Iruñea-Dantxarinea errepide-nagusietatik ateri gabe, ez dago gasolindegirik 24 orduz irekita dagoenik. Kilometro tarte handia dela eta, uda honetan arrenkura dexente

entzun dira han eta hemen, batez ere turisten aldetik.

Mapan ageri dira gure eskualdeko gasolindegien kokapena, eta beheko kuadroan, bakoitzak duen ordu-  
tegia.

Beharbada, arazoaren dako moldaketa sistema automatikoetan dago, Lesakan ireki duten gasolindegi berria-  
ren antzera. Modu horretan ez da beharrezkoa langile bat gau osoan egotea.

### Postuen prezioak orokorrean behiti egin dute enkantetan

Ehiztari aunitz eta diru gutti. Honelaxe, laburbildu daiteke gure eskualdeko ehizi lekuetan egin diren uso ehizi postuen enkante edo subastetan gertatutakoa.

Etxalarko Udalak, adibidez, iaz bildu zuenaren erdia jasoko du aurten. Iarmendiko kotoko 22 postuengatik 3.137.000 pezeta eman zituzten, joan den urtean baino 2.263.000 guttiago. 277.500 pezeta izan zen ordaindutako kopururik altuena.

Malerrekari dago-konez gauzak ez ziren hobekiago joan. Donamarian hiru lote hutsik gelditu ziren. Beintza-Labaienen ere Uztalako kortako postu lotea hu-

tsik gelditu zen eta irai-  
laren 26an aterako du-  
te eskaintza librean. Ameztiko postuak 480.000pezetan eta Lotzabiangoa 630.000pezetan (%10eko beherapenarekin) saldu ziren.

Urrotzen eta Oitzen postu guziak saldu ziren. Urrotzen Mugakosoro lote bat hasierako prezioan saldu zen (350.000 pezeta) eta bertzeak dexenteko igotera izan zuen (975.000 pezeta) ateri eta 1.347.500tan saldu). Leugarriko lepoko postuak behiti egin zuten eta 705.000tan saldu ziren eta Elkarrikoa ingurukoak hasierako prezioan, 950.000 pezeta, eraman zituzten.

### BAKE EPAITEGIAK

### Bortzirietako Bake Epaitegiak elkartzeko proposamena luzatu du Lesakako Udalak

Herri bakoitzeko Bake Epaitegia mantentzeak sortzen dituen gastuak eta Bortzirietako biztanlegoa 7.000 lagunetik pasatzen dela kontuan hartuz, bortz herrietako epaitegiak baten biltzea eskatu dio Lesakako Udalak Justizia Ministeritzari.



Momentuz, Berakoudalak bat egin du eskari honekin eta biztanle gehien duen herria dela argudiatuz, Bortzirietako bake Epaitegien Elkartea Beran jarri behar dela adierazi du.

Gainerako hiru herrien erantzuna falta da orain.

**SAROB**  
**okindegia**   
**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**GRUPO**  **ZURICH**  
**ASEGURO OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

**E D A R I A K**

  
  
**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. - Fax: 948. 63 10 27



# Bigarren Dantzari Txiki Eguna igande honetan ospatuko da

Euskal Herri osoko hainbat dantza talde etorriko dira

KRISTINA BOAN

Igande honetarako, irailak 29, Gure Txokoa dantza taldeak Berako II. Dantzari Txiki Eguna antolatu du. Joan den urtean hasitako bideari jarraikiz, Euskal Herriko inguru ezberdinetako dantzari tikiak ekarri nahi dira: Bizkaitik Gorlizeko Aratz dantza taldea etorriko da; Iparraldetik Lapurdiko herri ugaritako dantzariak; Gipuzkoatik Arrasateko Lore Gazteak dantza taldea eta Lezoko Murricka dantza taldekoak etorriko zaizkigu eta Nafarroatik, azkenik, Altsasuko Etorkizuna dantza taldekoak arituko dira Berako Gure Txokoakoekin batera.

Dantza talde bakoitzak auzo batean dantzatuko du. Eguerdiko letan Altzateko karrikan denak juntatuko dira elkarrekin *Agintariena* eta *Agurra* dantzatzeko. Berako dantzarien familiek kanpoko dantzariak beraien etxeetan hartuko dituz-



Goizetik auzoz auzo ibiliko dira dantzariak eta arratsaldean Eztegar pilotalekuan eskainiko dute beraien emanaldia

te otordurako eta arratsaldeko 5etan Eztegar pilotalekuan dantza

jaialdi bat hasiko da, herri bakoitzeko dantza taldeak bere erreperto-

rioaren dantzarik ikusgarrienak erakutsiko duelarik.

## Toki Ona kiroldegiak ikastaro eta zerbitzu eskaintza zabala izanen du aurten

Toki Ona kiroldegiko aurtengo egitarauari urriaren lehen emanen zaio hasiera. Denboraldi honetarako eskaintza zabala izanen dute: aerobic ikastaroa, karate, hiru-

garren adinerako gimnasia, mantenimendu gimnasia, muskulazio aretoa, bi frontoi txiki eta saunak.

Izena eman nahi duenak, 630215 telefonora deituz egin de-

zake edo zuzenean kiroldegira joanez.

Bertzalde, kirol kontuekin segituz, aipatu Gure Txokoako futbol talde nagusiak egin duen denboraldi hasiera bikaina.



◆ **Toki-Onako aparkamendua zolaberritzeko** lan eskaintzak urriaren 3ko eguerdiko 1a baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxean. Sobreak egun berean, arratsaldeko 6,45etan zabalduko dira eta lanak bukatzeko epea urriaren 31 izanen da. Hasierako aurrekontua 2.999.993 ptakoa da (BEZ barne).

◆ **Xantellerrekako saneamendu kolektore** berria egiteko lan eskaintzak urriaren 7ko eguerdiko 1a baino lehen aurkeztu behar dira Herriko Etxean. Hasierako aurrekontua 4.245.182 pezetakoa da.

◆ **Jose Luis Telletxea Maia** herriko presoa astearte honetan epaitu dute Lisboan. Autobusa joan zen Bortzirietatik elkartasuna adieraztera. Irailaren 16tik gose greban dago Joxelu, Portugaletik espulsatzeko arriskua baitu.

**BOTXO ostatua**  
Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA

**OKANE**  
HARATEGIA • URDAITEGIA  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

GOZOTEGI - JAIONE  
  
Altzate, 19 • 630786 • BERA

**ZALAIN**  
J A T E T X E A  
EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
Zalain Auzoa  
© 63 11 06  
BERA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**F. MARITORENA**  
  
**Mendi eta lorategi garbiketak**  
Tfnoa.: (948) 63 11 99 - BERA



# 86 milioi pezetako aurrekontua izanen du futbol zelai berriak

'Poligrás Ibérica' enpresak egingen ditu lanak

**AITOR AROZENA**

86.059.908 pezetaren truke egingen ditu 'Poligrás Ibérica, S.A.' enpresak futbol zelai berriaren lanak, azkeneko udal batzarrean ahobatez onartu zenez.

Udalak eskatutako baldintzak betez bi enpresek aurkeztu zuten beraien proposamenak, Adolfo Sobrinok 93.601.280 pezetakoa eta Poligras-ek hamar milioi t' erdi merkeago. Enpresa honek, halere, bertze proposamen bat aurkeztu zuen, zenbait hobekuntza (hiru urterako mantenimendua, bertzeak bertze) eskainiz. Azken hau izan zen Herriko Etxeak ahobatez onartutakoa.

HBko ordezkariak, halere, Nafarroako Gobernuaren subentzioaz galdetu zuten, hau ez bada ailegatzen Herriko Etxearen funtzionamendua zalantzan paratuko litzatekeelakoa. Alkateak berriz, "kasurik txarrenean ere, Nafarroako Gobernuak subentzioa ematen ez



## Frontoi berria estreinatu da ikastolako patioan

Taberna herriko pilotari profesionalak egindako ohorezko sakearen ondotik hainbat pilota partidu ikus ahal izan ziren irailaren 14an frontoi tiki berriaren inaugurazioan. Pilota eskolako gurasoen ekimenez eta udalaren, Euskadiko Kutxaren eta Rural Kutxaren laguntzaz egin da. Arg.: Aitor

badu, alegia, Herriko Etxearen zorpetzea ez litzateke %25etik pasatuko, Nafarroako udalen banazbertzearen azpitik" erantzun zuen. HBk ontzat jo zuen alkatearen erantzuna eta futbol zelai berria egiteko dagoen premia ikusiz eskaintza hobetuaren alde egin zuten, proiektuak sortu dizkien kez-  
kak gogoraziz.

## Batzokiak jasandako erasoak salatu du Lesakako PNVk

Irailaren 11ko gauean ezezagun batzuk pinturaz betetako botilak bota zituzten batzokiaren kontra, aintzinaldean, harrizko espaloietan eta etxe barrenean kalteak eraginez. PNVko Herri Batzarrak ekintza hau salatu du, «azkenaldian sufritzen ari ga-

ren kanpaina» batean kokatuz. «Harrikadak, bonba abisuak, lehergailu itxurako poltsak atarean izan ditugu eta egoerak goiena Sanferminetan jo zuen» dio PNVren idatziak. Ekin-tza hauek «bandalismoa baino urrunago doazela» diote, azkenik.

«18 urtetan sega desafiaio irabazi nuen Azpeitian»

Batez ere bertso munduan eta toberak jotzeagatik ezaguna bada ere, gazte denboran egindako sega apostuak gogoratuz omenduko dute urriaren 6an Hernaniko Jauregin Dionisio Mujika, orain 60 urte Asteasun sortu zen lesakarra.

### ■ Noiz aritua zara segalari bezala?

□ Gazte denboran, 18 urterekin hasi nintzen eta apostu bat irabazi nuen Azpeitin. 21 nituela Andoainen irabazi nuen. 23 urterekin utzi nuen, ezkondu nintzenean. Nere baserriaren izenarekin, 'Lizume', ezaguna nintzen apostuetan.

### ■ Zer egitarau izanen duzue Hernanin?

□ Goizetik sega apostu diferenteak izango dira, horien artean omenduko 9 lagunek egingo duguna. Gero bazkaria soinu-jole eta bertsolariarikin.



**Dionisio MUJIK**

**EROSLE**

LESAKA

Kalitate-prezio arteko oreakirik hoberena

**Frexkuena zugandik hurbilago**

Bittiria, 67 - ☎ 637264

**Deñe**

LENTZERIA  
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26

LESAKA



**INAXIO JANARIDENDA**

Igandetan 9etatik 13etara irekia  
ASTERO eskeintza bereziak

Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA

**KOXXILA**

**OSTATUA**



Zarandia, 4 - LESAKA



**ETXALAR**

# Urriaren lehen astean Euskara Batzordeak antolatutako kultur ekitaldiak

Guatemalari buruzko solasaldia eta Gariren emanaldia izanen dira

PELLO APEZETXEA

Urriaren 4an, ortzi-  
ralean, arratsaldeko  
7etan, Jon Sarasua ber-  
tsolariak, Amaia Ante-  
rok eta Kontxita Errok  
solasaldia emanen du-  
te, eskola zaharretan,  
Guatemalako egoeraz,  
beraiek han ikusi eta ika-  
sitakoaz. Solasez gain  
Guatemalako diaposi-  
tibak ikusteko aukera  
ere izanen dugu. Urria-  
ren 5ean, berriz, larun-  
batean, Garik eskeini-  
ko du bere emanaldia,  
toki berean baina arra-  
tsaldeko 8etan. Ekitaldi  
hauek Etxalarko Euskara  
Batzordeak antola-  
tuak dira, Bortziritako  
Euskara Mankomuni-  
dadearen laguntzarekin.

**Postuen enkantea**

Irailaren 14an egin  
zen ehiza postuen en-



**Oporretako azken egunak probexten ari dira gazteak. Ikasketak egiteko herritik kanpora joan beharrekien ez baitu aunitzek hainbertze aukera izanen**

Argazkia: Pello

kantera ehizturiak hotz  
samarrak etorri ziren,  
nonbait, ez baitzuten so-  
bera jo. Jo zuten, bai,  
baina postu merkeetan.  
Garestietan zuhur ibili  
ziren. Erakusgai izan

daiteke Parapetokoare-  
kin gertatua: iaz milioi-  
raino igan zen bezala,  
aurten 259.000 pezetan  
gelditu da. Sextak ez ba-  
ditu, behinik behin, gau-  
zak aldatzen. Subastan

denetara 3.137.000 pe-  
zeta bildu dira.  
**Landagain eskolan  
ia iazko irakasle  
berak**

Nekane kenduz ge-  
ro, gainerako irakasle

guziak iazkoak dira:  
Kontxexi, Enkama, Ma-  
rian eta Azuzena. Iaz-  
koak erratean, berririk  
ez dela erran nahi du-  
gu. Eta horixe da berria,  
gehienetan irakasle al-  
datzea gertatzen baita  
gure herrietan, behin-  
behineko irakasleen jo-  
an-etorriak. Iazkoak  
erratean, ezagunak di-  
rela erran nahi dugu,  
haurren eta gurasoen  
ezagunak.

**Eskolako ikasle kopuru berdina**

Jaiotza kopurua tti-  
kitzen ari den urte hau-  
tan, normaltzat jotzen  
dugu eskolako haur ko-  
purua ere murrizten jo-  
atea. Horregatik dira,  
han eta hemen, lanik ga-  
be gelditzen irakasleak.  
Etxalarren aurtengoz  
mantentzen da ikasle-  
goa, iaz baino bi haur  
gehiago baitira.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

**BEREAU**  
jatetxea • Hotela  
Lesakako Bidegurutzean  
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**TOP CLASS ENGLISH**  
**INGELES AKADEMIA**  
Alan Leiper  
ZUZENDARIA  
ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa  
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.  
ESKOLA LAGUNTZA  
4 URTETIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK  
Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak  
LESAKA • Bittiria Plaza 6, Behea • ☎ 989.702554  
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)  
ETXALAR • (Eskola zaharretan)

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
Proba ezazu gure ostruka plater exotikoa  
© 635290  
**ETXALAR**



**IGANTZI**

# Irailaren 27tik 30era ospatuko dira aurtengo Sanmigelak

XVII. Artzai Zakur lehiaketa berriz, urriaren 5ean burutuko da

**Ortzirala 27**

Goizeko 9etan herri gosaria Ziobi mendian. 9,30etan plater tiraketa. 4etan Igantziko II. Jota Txapelketa. 5,30etan Udaletxetik txupinazoa botako da LARRAKAITZ txarangak giroa animatuko duelarik. 6etan Betizuak. Ondotik, buruhaundi eta erraldoiak aterako dira. 12etan MAILA eta ITZIAR. **Larunbata 28** **Haurren Eguna** Egun osoan haurrendako jokoak izanen dira. 12etan Pilota partiduak: Koka-Gastesi, Haritz-Galartzaren kontra. Irazoki-Retegi, Zubieta-Altzugurenen kontra. Lau terdiaren barrenean: Irigoien-Mikelperizena. 5etan betizuak eta potto-



Txistularien doinuak nahitaezkoak dira herriko bestetan

kak. 8etan bertso saioa Sarasua, Iturriaga, Sorozabal eta Egaña bertsolariekin. Gai-jartzailea; Jon

Abril. 12etan dantzaldia URRATS taldearekin. Egun osoan ZIZKUITZ txaranga arituko da.

**Igandea 29** **San Migel Eguna** 11etan Meza Nagusia Igantziko Abesbatzak kan-

tatua. 12etan herriko dantza taldearen saioa. 6etan Herri Kirolak: Proba konbinatua Arraioz, Etxauriko Harana eta Ultzama. Lasto aitxatzea Igantziko txapel-dunekin. Dantzaldia IZOTZ taldearekin.

**Astelehena 30**

11etan betizuak. 2etan zikro-jatea Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso bertsolariekin eta ZIZKUITZ txarangaekin. **Arratsalde** eta **gau**ez dantzaldia EGAN taldearekin. Bertzalde, **urriaren 5ean**, **arratsaldeko 4,30etatik** aitzinera, Igantziko Artzai Zakur lehiaketaren hamazazpigarren edizioa burutuko da Meakaundiko zelaietan. Beste akabera emateko modu polita.

**BI-BIDE**  
ostatu  
janaridenda  
**BESTA ALAITSUAK**  
**OPA DIZKIZUEGU**  
Tfnoa: 63 72 78  
IGANTZI

**BI-ENA**  
Arraultze freskuak  
Ongi pasa bestetan!  
**oilotegia**  
© 637379 IGANTZI • © 630180 BERA

**ATM S.A.**  
• Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera  
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.  
• Garraio zintak eta mahaia.  
• Mantenu rodilloak.  
Igantziko Bentak • © 63 74 11

**JOSE AGERRE**  
**PINTURA LANAK**  
  
• Fatxadak garbitu eta pintatu  
• Kanpo eta barneko pinturak  
• Papera lanak  
• Barnizatzeak  
• Gotelē  
• Moketa eta zintasol  
© 908. 97 93 06 • 637957 • IGANTZIKO BENTAK



**JATETXEA**  
**LA VILLA**  
**Besta zoriontsuak opa dizkizuegu**  
Tfnoa: 63 72 90 • IGANTZI

**IGANTZI**  
**OSTATUA • JATETXEA • HOSTALA**  
Aurtengo Sanmigeletan ireki berria izanen den **IGANTZI** ostatu-jatetxe-hostalak festa zoriontsu batzuk opa dizkizue.





Argazkiak: Oskar TXOPERENA



Herri kirol saioan, proba konbinatua eta lasto altxatzen herriko txapeldunak ikusteko aukera izanen da. Haurrek ere, jostetan aritzeko aukera polita izanen dute beraien egunean. Eguzkiak gordetzeko zapelak erabili ahal izanen ditugu, agian ere.



CONSTRUCCIONES MECANICAS  
**BERRIZATUN S.L.**

Eraikuntza eta moldaketak  
Despiezea eta makinaria  
Mekanika mantenimendua

Igantzioko Bentak • ☎ 627572 • Faxes: 637313

## SEBERIANO TXOPERENA



**Oilasko eta oilanda salmenta**

Tfnoa: 637784  
IGANTZI

*Ongi pasa  
herriko  
bestetan  
ttipi-ttapa*

## IRUGLAS, S.L. GRABADOS

### GRABATUAK:

Edozein marrakzi  
edo argazkirekin

- Granitoan
- Ispilu eta kristaletan
- Zeramikan
- eta edozein materialetan

### ESKUDO HERALDIKOAK

Ateen kristalak grabatzen ditugu, koloretan edo kolorerik gabe

Fraineko Bidea • Tfnoa: 637412 • Faxes: 637800 • IGANTZI





**ARANTZA**

# Ehizturiak hasiak dira ehizi denboraldia behar bezala prestatzen

Arkupeak elkarfeak berriz, mantenimendu gimnasia ikastaroa antolatu du



## Mantenimendu gimnasia prestatu du Arkupeak elkarfeak

Aurten ere Arkupeak jubilatutako elkarfeak hasiko dira mantenimendu gimnasia ikastaroa egiten. Urriaroren bukaeran hasiko dira klase hauek eta parte hartu nahi duenak Martin Ibarrolari eman beharko dio izena. Hamabortz lagun baino gehiagoko taldea osatu behar omen da astean bi egunehar gimnasia egiteko. Argazkian ageri denez, dena ez da soinketa eta izerdia botatzea izanen, ikastaroa akautzerakoan, otordu eder baten inguruan bilduko baitira bertan izena eman dutenak. Ea animatzen zareten!

Argazkia: Artxiboa

### ELIXABET ETA GARBIÑE

Betidanik ehizturi herri fama izan du Arantzak eta urriarora ailegatzearekin batera, ehizturiak ere beraien prestakuntzetan hasiak dira. Dagoeneko, ehiztari bakoitzak badaki zein postu egokitu zaion aurtengo ehizi denboraldirako. Berrikuntzen artean, aipatu behar da bai Bagatxar eta baita Ekaitza mendietako bideak ere moldatu dituztela eta, adibidez, Bagatxarko bidean hamaka kamioi masa bota omen dituzte. Ehiztariak dena prest dute hilabetea mendian pasatzeko eta beraien txabolak hornitzen aritu dira. Orain eguraldi ona ateratzearan esperoan daude, erauntsiak apartatu iztza.

### Ikasturte berria

Ikasturtea hasia den honetan, kanpoan ikasten duten gazteak beren ikaslekuetara joaten hasi dira. Horrela uda guztia elkarrekin pasatu ondoren, gazteak Iruñea, Leioa, Gasteiz, Donostia eta bertze lekuetan barna banatuko dira.

### Herri lurren eskualdatzea

Nafarroako Gobernuak baimena eman dio Udalari Baraseku inguruetan duen 3.015 metro karratuko herri lur eremua Felix Bergarak duen 261 metro karratuko terrenoarengatik aldatzeko. Eskualdatzearen helburua, inguru hori moldatu eta herriko sarrera erraztea izanen da.



Irungo errepidea - BERA - Tel. 948-631317

### HARRI NATURALA

#### ATERATZEA eta LANTZEA

- |               |            |
|---------------|------------|
| Antzinaldeak  | Tximiniak  |
| Angeloak      | Èrlaizak   |
| Orma antzinak | Moldurak   |
| Leihoak       | Zokaloak   |
| Ateak         | Hilarriak  |
| Arkuak        | Marrazkiak |
| Pilareak      |            |

'Abujardada' Mazizoa  
Zahar antzekoa Tsangaitza

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



### ALBERGIA JATETXEA

© 634179  
ARANTZA

## koxkonta

*Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia*

*Deitu enreserbak egiteko*

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**

## KATTU

ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak

© 627573 • **LESAKA**

Albistur, 39-K • © 627542 • **LESAKA**  
bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

© 631076 • **BERA**



# Soldaduskaren ordezkoko zerbitzua herrian egiteko aukera emanen du udalak

Horretarako, Kontzientzi Eragozpenerako Zuzendaritzaren laguntzaile izan nahi du

IXABEL ETA JOSUNE

Soldaduskaren Ordezko Zerbitzu Soziala herrian bertan egin ahal izateko lehen pausuak eman ditu Udalak. Honela, Kontzientzi Eragozpenerako Zuzendaritzaren erakunde laguntzailea izan gogo du Herriko Etxeak. Horretarako udal idazkaria, Iruñeko ardura-dunarekin harremanetan jartzeko gelditu zen.

## 80.000 pezetako laguntza eskulangintza ikastarorako

Nafarroako Gobernuko Emakumearen Institutuak 80.000 pezetako dirulaguntza eman du herrian eskulangintza ikastaroa egin dadin. Udalak idatzi

hau ezagutuzat eman ondotik, ikastaro honetan parte hartzeko interesa duten emakumeekin biltzea erabaki zuen, espediente honen egoera argitzeke.

## Hautesle-errolda

Herriko hautesle-errolda ikusgai dago Herriko Etxeko iragarri oholtzan. Bertan apuntatua zauden jakiteko interesa baldin baduzu irailaren 27ra arteko epea izanen duzu.

## Informatika udal bulegoetan

Idazkariak adierazi duenez, Niebla enpresak baldintza hobekak eskaintzen ditu Animak baino. Halere, Goizueta eta Arantzako udalekin solastea erabaki da.



## Uso ehizi denboraldirako prestatzen ari dira ehiztariak

Bidasoa-Berroarango kotoko uso postuetako konponketak iraileko larunbat eta igandetan egiten ari dira inguruko ehiztariak. Bazkideentzako lan hauek bete beharrekoak dira, bertzenaz 5.000 pezetako isuna ordaindu beharko dute. Bertzalde, ehizan ibiltzeko txartelak salgai daude estankotan 6.000 pezetetan. Urriaren 12a baino lehen hartu behar dira, bertzenaz 1.000 pezeta gehiago ordaindu beharko baitira.



**AMEZTIA**  
**Jatetxea - Hostala**  
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
 Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE



**BELARRA**  
**OSTATUA - JATETXEA**  
 Ameztia karrika • DONEZTEBE  
 Tfnoa: 45 03 06



## TELLETXEA MOBLEAK

**Moble erakusketa haundia**

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



**MALERREKA**

# Doneztebeko La Union kasinoak urteko besta ospatuko du igandean

Herriko zortzi pilotariren arteko laxoa partidua jokatuko da

**TXEMA ALDABE**

Igande honetan, irailak 29, ospatuko dute bere urteroko besta La Union kasinoko bazki-

deek. Egitaraua herriko txistulariek zabalduko dute, karrizak karriz ibiliz. Ondotik hildako kideen aldeko meza izanen da. Eguerdiko parte-

an, laxoa partidua jokatuko da herriko zortzi pilotari hobenxkoen artean eta gero bazkaria izanen da. Ez dira faltatuko, noski, txule-

tak eta banabar gorriak menuaren barnean.

Bazkarian parte hartzeko izena, Titi eta El Cafe ostatueta eman daiteke.

## Bertso jaialdi ederra Narbarteko trinketean urriaren 6an

Andoni Egaña, Xebastian Lizaso, Jon Sarasua eta Bittor Elizagoien bertsolariak arituko dira Narbarteko trinketean urriaren 6an, igandean, arratseko 7etan.

Ekitaldi hau, azkeneko urtetan ohi duen bezala Malerrekako Euskaltegiak (IKA) antolatu du, euskara ikasi eta irakurtzen eta idazten trebatu nahi dutenendako zuzendutako 'Euskara lau haizetara' matrikulazio kanpainaren barnean.

Bide batez, gogorazi behar da matrikulatu nahi dutenek irailaren 30a artio astia izanen dutela oraindik.



## Lourdes Leitzak irabazi du Kankunerako bidaia

Elizondoko Lourdes Leitzak irabazi du Bertizko Partzuergo turistikoko merkatarien elkarteak zozketatutako bi pertsonendako Kankunerako bidaia. 87.212 zenbakia zeraman txartela Doneztebeko Albaitaritza Zentroan (CTV) eskuratu zuen.

Arg.: MENA



### ◆ Nafarroa Oinez-era autobusa

antolatu du Langarra taldeak. Izena Malerrekako Euskaltegiaren eman behar da (451555 telefonoa) urriaren 9a baino lehen 1.200 pezeta ordainuz. Aurtengoan Nafarroa Oinez urriaren 13an ospatuko da Etxarri-Aranazen.

### ◆ Doneztebeko kanposantua zabaltzeko

lanak 10.103.566 pezetaren truke egingen ditu J.V. Juberaren erakuntza enpresak. 92 nitxo edo horma-hilobi berri egingen dira hiru hilabeteko epean.

### ◆ Intzakardi parkea moldatzeko

Jose M<sup>o</sup> Olazar bigarren mailako ofizial gisa eta Oscar Elorza eta Miguel Etxeberria peoi bezala kontratatu ditu Doneztebeko Udalak, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean. Parkeari itxura politagoa emanen zaio.

## FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



## SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**MALERREKA**

# Urrotzko Sanmigelak irailaren 26tik 30era ospatuko dira

Ezkongabeen egunean mozorro-dantza izanen da

**Ortzeguna 26**  
**Etxekoandreen Eguna**  
**8etan** txupinazoa bestei hasiera emanez. **9etan** zopak eta txuritabeltzak Herriko Ostatuan. **12etan** dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

**Ortzirala 27**  
**Ezkongabeen Eguna**  
**10etan** argi-soinuak eta gosaria Herriko Ostatuan. **12etan** mus txapelketaren hasiera. **1etan** aperitiboa Herriko Ostatuan. **5etan** kalejira etxez etxe. Arratsaldez eta gauz dantzaldia Jone, Izaro eta Igone trikitilariarekin. **12etatik** aurrera mozorro-dantza.

**Larunbata 28**  
**Haurren Eguna**  
**10etan** argi-soinuak eta gosaria. **12etan** mus txapelketaren finala. **1etan** pilota partiduak herriko gazteen artean. **5etan** haurrendako jokoak eta ondolik txokolatada. Arratsaldez eta gauz dantzaldia GAUBELA taldearekin.



**Aurten ez da ahare aposturik izanen baina herri kirolak bere tartea izanen du Urrotzko Sanmigeletan**

**Igandea 29**  
**San Migel Eguna**  
**12etan** Meza Nagusia herriko zaindariaren ohoretan. **1etan** aizkol apostua: Mindegia eta Senosiain, Larretxea eta Etxeberriaren kontra. Bikote bakoitzak kanaerdiko 12 enbor moztu beharko ditu. Ondoren

luntxa Herriko Ostatuan. Goiz eta arratsaldez Pista Libre, gaztelu haizatuak eta zezen mekanikoa. Arratsaldez eta gauz dantzaldia GAUBELA taldearekin.  
**Astelehena 30**  
**Herriar guzien Eguna**  
**1etan** aizkol apostua: Agite, J.A. Mindegiaren kontra.

**2etan** herri bazkaria Angel Mari Peñagarikano eta Xabier Zeberio bertsolariarekin. **6etan** sokatira saioa ezkondu eta ezkongabeen artean. Arratsaldez eta gauz dantzaldia JOXE ANGELEkin. **Goizaldeko**  
**5etan** beste akabera ematen zaie karrikak garbituz.



**Astoputz ederra Saldiasen**

2,150 kilo duen astoputz hau aurkitu zuen Axuncion Mari-ekurren Saldiasen. Onddo hau ezaguna da sendagai bezala erabiltzeko, bere hautsak zauriak itxi eta or-baintzeko balio baitu.

**Kultur Egunak antolatzeko bilera Iturenen**

Urriaren 4ean arratsko 10etan burutuko da aurtengo Kultur Egunak antolatzeko bilera Ituren Herriko Etxean. Abenduan burutuko da, seguraski, duela urte batzuek honat egiten den ekitaldi hau.

Abuztuaren bukaeran egin zen lehenengo bilera, Ibintza kultur taldeak deituta, talde hau baita egun hauen antolaketaz arduratzen dena.



Argazkia: MENA

**Joakin Mitxeltorena 'Arginene' txistularia omendu zuten Langarraren Egunean**

Joakin Mitxeltorena 'Arginene' txistulariari omenaldi hunkigarria egin zioten irailaren 15ean Donamarian herriarrek eta Langarra euskara taldeak. Xistularia, atabalaria eta organo jolea izateaz gain, bere xeibrekeriak ospetsuak izan dira Donamaria eta inguruko herrietan. Orain, 88 urterekin sasoi onean dago oraindik.

bere ikasle izandako txistulariak, Donamariako trikitilariak eta Baztango dantzariak aritu ziren. Makutso bere lagunak ere ez zuen hutsegin. Oroigarri gisa, plaka, xistua eta erramu bat eman zioten. Aunitz urtez, Arginene.

Erran behar da Langarraren Eguna izugarri arrakastatsua izan zela, 150 lagunetik gora elkartu baitziren bazkarian, giro ederrean.

Omenaldi egunean,



**GOIZUETA**

# Depuradoraren proiektuari aurre onarpena eman zaio

Herritar batzuek alegazioak aurkeztu dituzte

**ESTEBAN AROZENA**

Herriko ur zikin edo erresidualak garbituko dituen depuradoraren proiektuak udalaren aurre onarpena jaso zuen irailaren 13an korporazioak egindako osoko bilkuran.

Hasiera batean depuradora Asinco eta Lasaren pabilioien lur

eremuan kokatzea pentsatzen zen. Aukera hau ez da Nilsaren gustokoa izan, eta proiektua 25 milioi pezeta garestitu arren, San Anton base-riaren ondoko belaso-roan egingo da azkenean, herritik ahal den neurrian urruntzeagatik Nilsakoek diotenez.

Proiektu honen ia 100 milioiko kostoa

Nafarroako Gobernuak ordainduko omen du oso-osorik. Baita, behin martxan jarritakoan, egunen eguneko mantnimendua ere. Halere, herritar guztiak ez dau- de ados obra honekin, eta hodia-ria edo tuberia igarotzen den baratzen hainbat jabe- k beste her- ritar batzuekin batera alegazioak aurkeztu di-


tuzte Nafarroako Go- bernua eta Udalaren au- rrean. Hodia-ria erre- kondoan barrena iga- rotzea da hauen eskae- ra nagusia, baina Nilsak ia erabat baztertu omen du aukera hau, Ur Konfederazioak jarriko litzukeen oztopoz gain, lanen kostoa ere ikara- garri igoko litzatekela- ko horrela.

**Dantza herrikoien ikastaroa emanen da laister**

Udazkenero bezala ikastaroen uholdea gainean dugu aurten ere, eta aurreneko deialdia Nafarroako Gobernu- a eta Udaletxetik dator, Dantza herrikoiena hain zuzen. Zortzikoa, Arin- arina edo Jota dantzat- zen ikasi nahi izanez ge- ro Urrutinean edo Antton kafetegian eman behar da izena iraila bu- katu aurretik, kontutan hartuz 16 urte baino gehiago behar direla eta ikastaroa dohainik de- la.

**Lau herritar Nafarroako trikitilari txapelketaren finalean**

Dani eta Ainara Narbarte eta Irune eta Patxi Zabala anai-arre- bek Nafarroako trikiti- larien txapelketaren fi- nalean aritu ziren. NARBARTARRAK laugarren eta ZABALATARRAK zazpi- garren izan ziren.



Itxura hau izanen du depuradorak proiektuaren arabera

**ARESO**

# Arazoekin eman zaio hasiera ikasturte berriari

Gela gutxiegi daude guraso eta irakasleen ustez

**JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR**

1996-97 ikasturtea- ri hasiera eman zitzaion irailaren 9an. Aurten hi- ru irakasle eta 3 eta 11 urte arteko hogeita zor- tzi haurrekin hasi da. Irakasle bakoitzak hiru maila emanen ditu. Larrienak, irakaslea tu- toria erdikoa izanen du-

te (goizez bakarrik) eta arratsaldeko klaseak Leitzetik etorriko den irakasle ibiltariarekin emanen dute.

Eskolak bi gela ditu eta gutxi-egi direla eta irakasleek eta guraso el- karteak mobilizazioak eta eskaerak egin diz- kiote Hezkuntza saila- ri. Inspektorearen bisi-

ta izan ondoren, egoe- rari azterketa eginez, minimo batzuetan lan- ean jarraitzeko eraba- ki zuen, gimnasio eta tutoria-gela erabiliz. Eskola kontseilua irai- laren 19an bildu zen eta beste informe bat egin du beste gela batzuen beharra azpimarratuz. Irakasleak eta guraso el-



Hiru eta hamaika urte arteko hogeita zortzi haurrek hasi dute ikasturte berria

karteak ados zeuden gai honetan eta txostena si- natu zuten. Udaletxeko ordezkariak, ordea, ezezkoa eman zuen.

❖ **Gripearean** kon- trako txertoa emango dute mediku kontsultan urriaren 4an eta 25ean, 12etatik 1etara.



**Festetako istiluak jorratu ziren Pleno berezian**

Irailaren 9an Udala batzarre berezian bildu zen Festa egunean gertatutako istiluetan Silvestre Zubitur zinegotziak izan zuen portaeraz mintzatzeko, bertara 130 lagunetik gora azaldu zelarrik. Egun horretan txoznek Ikurriñaren eguna ospatzen zuten. Ikurriña globoen bitartez altxatzen ari zirela, balinezko eskopeta batez Petrorenako balkoitik globoak lehertu zituen beraien asmoa zapuztuz. Gertakizun hauen eta aurretik Baleztenatarren eta gazte batzuren arteko istiluen aurrean, batzarrak HBren proposamenaz, honako hau onartu zuen: **1.** Zubiturek botatako tiroen berri Instrukzio Epaitegiari eman. **2.** Alkateak jaso dituen heriotz mehatxuak gaitzetsi eta zerbait gertatuko balitzaio Zubituren inguru politikoaren erantzukizuna izanen dela azpimarratu. **3.** Ikurriña tirokatzearekin leitzar gehien sentimendu sakonak tirokatu dituela jakinarazi. **4.** Zinegotzi bezala dimititzea eskatu. Bestalde EAKekin zaren eta alkatearen kontrako mehatxuen salaketa epaitegian aurkeztea proposatu zuen, Zubituren dimisioa eskatzearekin batera.



**Aurrera futbol zelairik gabe egon liteke laister**

Lanbardo futbol zelaia Sarrioren proiektu batek afektatzen du

**JOSEBA AZPIROZ**

Sarriopapel y Celulosa enpresak biltegi berri bat eraikitzeko inbertsioa onartua du.

Pabilioiak 3.600 m<sup>2</sup> izanen ditu eta oraingo almagaren atzeko aldean kokatuko da, hau da, Egoki eta Lanbardo futbol zelaia

aldera, azken hau, bai pabilioiarekin bai egin behar dituzten akzesio eta urbanizazioekin, afektatzen duelarik.

Orain dela hamahi-

ru urte utzi zuen Sarrio enpresak lur eremu hori futbol zelaia egiteko, behartu ezkeror berriro bueltatzeko baldintzarekin.

**Herri lurak erabiltzeagatik kobratuko dena onartu berri du Udalak**

Komunalen erabile-  
ragatik kobratuko dituen kanon berriak onartu ditu Udalak. Horrela, datorren urtetik aurrera, alorra erabiltzen dutenek area bakoitzeko 500 pezeta ordaindu be-

harko dute; belarsoroengatik 10.000 pezeta hektareako eta larrearengatik 6.000 pezeta hektareako. Lurzati komunalen probetxamendua dutenak, terenoaren atakan bere izaera ko-

munala azalduko duen txapa bat jarri beharko dute. Nahiz eta datorren urterarte ez kobratu, orain arte egindako eskaerei erantzuna laister emanen dietela adierazi dute udalekoek.

**Moto karrera igande honetan**

Aurreko igandeko iragarrita zegoen motoen karrera igande honetan, irailak 29, arratsaldeko 4etatik aurrera burutuko da.

**ZUBIETA**  
© 948-451771

**J. RAMOS**  
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditudat  
© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

**Elizatzte**  
ERLOJUTEGI  
BITXITEGIA  
Nafarrentzat prezio bereziak  
Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

**muñeca de Trapo**

**IRUN**

Luis Mariano, 35  
Tel.: (943) 62 52 55



**BAZTAN**

# Arraiozko Ariztiberry frontoia urriaren 6an inauguratuko dute

Besta egun haundia prestatu dute estreinua emateko

JOSEBA IGARABIDE

Urriaren 6an eginen da Arraiozko Ariztiberry frontoi berriaren inaugurazioa eta ekitaldiz betetako egitaraua prestatu dute egun berezi hori ospatzeko. Goizetik pilota partiduak, aizkol apostua eta herri kirol saioa izanen dute pilotalekuari estreinua emateko. Ondoren herri bazkaria izanen da leku berean. Bazkarirako txartelak Zubiondo ostatuan salgai daude irailaren 30a arte, 3.500 pezetan truke.

Erran beharrik ez da arraioztarrak pozik daudela, 40 milioi inguru gosta den frontoia erabili ahal izanen baitute hemendik aitzin.

## Belateko lanak gibeleratuak

Irailaren 11n egin-dako bisitaldi batean, Belateko tunela 1997ko irailean zabalduko dela erran zuen orain arte Herrilan, Garraio eta Komunikabide kontseilaria izan den Ibero jaunak. Eskabazio lanek urtebeteko atzerapena omen dute lur azpian izandako uriturriak direla medio. Eraberean, kontseilariak N-121 errepideak Mugairi eta Behobia tartean espe-



## Mariano Izetaren 'Baztango Hiztegia' laister argitaratuko du Nafarroako Gobernuak

Mariano Izetaren 'Baztango Hiztegia' liburua urrirako edo argitaratuko du Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak. Hasmentako sarreraren ondotik, Baztan aldeko hitzak daude eta, gero, Baztango erranairuak. Paskual Rekalde amaiurtarraren esku egon da Marianoren izkribuak ordenagailura pasatu, antolatu eta itxura emateai.

ratu egin beharko duela erran zuen, arazoko ekonomikoak direla medio.

## Lekarozen lana edo proiektu iluna?

Egoitza nagusia Lekarozen duen 'Nueva Era del Ocio' delako enpresaren inguruan zenbait berri argitaratu dira asteotan komunikabideetan.

Enpresaren publizitatean, haurrak eta xa-

harrak zaintzeko 1.000 lanpostu finkoren eskaintza egiten dute, horretarako azterketa batzuz egin behar direlarik. Nafarroan 400 pertsonak egin zuten test psiko-teknikoa, bakoitzak 3.800 pezeta ordainduz.

Iratxe kontsumitzaileen elkarteak oraingoz legetik ez direla atera dio baina iluntasun haundiko proiektua dela uste du.

## Istorio zaharrak Doikereren eskutik

Doike euskara taldeak irailaren 13an Istorio zaharren kontaketa egin zuen Erratzuko Etxelebertzeko Txokoan. Bertan izan ziren Emilia Azkarate, Felix Iriarte, Juanito Aleman eta Inazio Maritorea. Denbora librean nola pasatzen zuten kontatu zuten. Garai batean orain baino asti gehiago omen zegoen.



## Amaiurko mediku kontsulta moldatzeko

2.371.978 pezetako dirulaguntza eman dio Balleko Etxeari Osasunbideak. Lanak lehenbailehen egiteko lehiaketa zabaldu da.

## Oihanberritzea herri lurretan

Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Sailak Amezti, Gaine-kola, Otxondo eta Sagarbil inguruetakoa herri lurretan oihanberritzeko proiektuak egin ditu.

## Pintura ikastaroa

5 eta 10 urte arteko haurrendako pintura ikastaroa burutuko da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean asteazkenean, urriaren hasi eta datorren urteko maiatza arte. Matrikula 5.000 pezeta gostako da eta Balleko Etxeak 62.776 pezetarekin lagunduko du.

## Euskara ikasteko

AEKko euskaltegian izena emateko epea irailaren 26an bukatuko da.

## Guardiazibil

baten kotxea erre zuten Elizondon irailaren 13 eta 14aren arteko gauean.

ARROPA DENDA

MERCERIA

**FANTXIKE**

JAJME URRIETA, 24  
TFNO. 580312  
ELIZONDO

**CERVANTES**

HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

**Pierresenea**

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI




**BAZTAN**

# Anizko bestak urriaren 5etik 8ra Arrosarioko Amabirjinaren ohorez

Adiskidetasun Eguneko zinger jatearekin akabatuko dira

**Larunbata 5**  
**Bezpera**  
**8etan** altxaferuak beste hasiera emanez. **12etatik 4,30etara** dantzaldia MARTINen taldearekin. Ondotik, zinger-jatea. **Igandea 6**  
**Arrosarioko Amabirjinaren Eguna**  
**11etan** Doneztebeko txistulariak karrikaz karrika. **12etan** Meza Nagusia. **1etan** otordua. **6etan** Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren kanporaketa. **7etan** pilota partidua: Olaizola-Barriola, Etxaniz-Errandonearen kontra. **8,30etan** MARTINen taldea.

**Astelehena 7**  
**Haurren Eguna**  
**10,30etan** futbito txapelketa: Zaharrak gazteen kontra. **11,30etan** haurjokoak. **12,30etan** mus txapelketaren kanporaketa. **5etan** pilota partiduak. **11etan** herri afaria. Etxe bakoitzak nahi duena eramaten ahal du.  
**Astearte 8**  
**Adiskidetasun Eguna**  
**10etan** Anizko inguruak zaldi gainean ikusteko aukera paregabea. **1etan** mus txapelketaren finalak. **2,30etan** zikiro jatea Joxe Angelek alaitua. **11etan** zinger-jatea beste akabaila ona emateko.



Zikiro-jatea izanen da besta guzietan bezala

## Almandozko Babes Ofizialeko pisuen giltzak emanen dira

Dirudienez aste honetan Almandozko Babes Ofizialeko pisu berrien jabeek giltzak eskuratuko dituzte. Maiatza hartzea espero bazuten ere, bajearen prezioaren igoera zela eta erosleek egilearekin izandako arazoengatik, orain arte ezinezkoa izan dute.

## Almandozko serora izandakoa berriki hil da

Almandozko elizan 40 urtez serora lanetan aritutako Joaquina Etxabarri hil da. Duela urte batzuk apezarekin batera herriak emandako omenaldi merezia hartu zuen.



## Baztan futbol taldeak joan den denboraldiko sariak banatu zituen

Baztan futbol taldeak irailaren 15ean banatu zituen joan den urteko sariak. Meoki eta Apezetxeak –totorika– eta Alzugarraik –zutik, lehendakaria eta patrozinatzaileen ondoan– jaso dituzte 95-96 denboraldiko sariak.

Unai Meoki izan zen golea-tzailerik onena eta Iruritako Olari jatetxeak eta jarraitzaile ezeza-

gun batek ematen duen sari banajaso zuen. Peio Apezetxea izan zen jokalaria erregularrena eta Elizondoko Mendi ostatuak emandako saria jaso zuen oroi-garrizat. Baztan futbol taldeak, azkenik, aurtengo denboraldian erretiratu den Jose Luis Alzugarrai saritu zuen, taldeari eskainitako urteak eskertuz. Arg.: ONDIKOL

**FOTO MENA**

**ZURE ARGAZKIAK**  
ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

KALE NAGUSIA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE  
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

**BODEGAS ERRASTI, S.L.**

**Bodegas Gailur**

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK

GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea

**TXOPORRO Ardoak**

M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO

☎ 58 02 78

M<sup>rs</sup> Dolores Miñana  
**TOPOGRAFA**

**NEURKETA • PLANOAK**

Lur neurketak, Luberriak  
Plantazioak, etab...

☎ 580143 - 989.445986  
Santiago 68, 3. esk. ELIZONDO

**DANBORIENA**

**OKINDEGIA**  
**GOZOTEGIA**

☎ 453403 - ARIZKUN



**URDAZUBI**

# Berrogeita lau ikaslek eman diote hasiera 1996-97 ikasturteari

Zazpi irakasleetatik bi berriak izanen dira

SILVIA OLAIZOLA

Irailaren 9an eman zitzaion hasiera kurtso berriari. Urdazubi eta Zugarramurdiko ikas-tetxeetan aurten arituko diren zazpi irakasleetatik bi berriak izanen dira. 44 ikasleetatik 26 euskaraz ikasiko dute eta gainerako guztiak erdaraz. Hiru urtetik goitiko haur guziki eskolatu dira eta aurten sei izanen dira lehen aldiz klasera joanen diren haurrak.

Bertze aldetik, lais-

ter emanen diote hasiera mekanografia kurtsoari. Ikastaroak lau hilabete iraunen ditu eta klaseak ortzegunetan emanen dira Urdazubin, arratseko 8,15etatik 10,15etara.



### Bigarren jaiotza

Jaione Perurena Azkarragarena, irailaren 8an izan zen urteko bigarren jaiotza. Lehendabizikoa uztailan izan zen. Aspaldi honetan, jaiotzak gutitzen ari dira, heriotzak gero eta gehiago diren bitartean.



Udako bakantzak akitu ziren

**MUEBLES AMETS**  
*mobleak orokorreen*  
 BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA





# Eguraldi ona eta sekula baino jende gehiago ukan dugu aurtengo bestetan

Plazan leihotik leihorat egin zen bertso saioa, ekitaldirik aipagarriena

MIXEL ETA JACQUELINE

Aroaren aldetik uda nahiko kaskarra igaro eta herritarrek kexu ziren ez al zuen ildo beretik jarraituko besten karietarat. Zorionez eguraldi ona ukan ginuen eta sekulan baino jende gehiago ibili zen egunero. Ekitaldi desberdin eta oso baikorrak burutu ziren bainan bati aipamen berezia egin beharrez hauta genezake asteazken astirian plazan leihotik leihorat egin zen bertso saioari. Gainera, Erramun Martikorena eta Iñaki Marixalarrek eman zituzten kantuek giroa xarmanki aillatu zuten.

Orain, Besta Elkartea urriaren 20an iraganen den Uso Bestaren antolatzen ariko da.



Erramun Martikorena eta Iñaki Marixalarrek eman zituzten kantuek giroa xarmanki aillatu zuten asteazken astirian. Jendea adi adi egon zen bi musikarien saioan.

Eskerrik beroenak bestahoriek antolatu dituzten guzieren eta parte hartuz bizi arazi dituztenei.

## Uso sasoina gain gainean dugu

Beti bezala usategiak berriz ere beren sareez apaindu dira. Azken hiru urte hauetan usategi berrietan ehizatu baldinbada, aurreko betiko lekuan ehizatuko da. Ehizturiak, udazkenean sartu berritan, zerurat begira hasiak dira, lehen uso multzoak ikusi nahian. Uda kaskarra izan badugu ere, urriaro goxoa eta hego haize epela behar dute beraien lana egiteko. Agian suerte ona ukanen dute, bainan ondoko balentriak aipatzeko astia ukanen dugu.



**ARMUA**  
**Jatetxea**

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

## HERRIKO ETXeko EDANTEGIA

Michel eta Kattin  
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19  
64130 SARA



**ttipi-ttapa**  
**Gida 96**



Ez galdu sekulan begi bistatik.  
Den-dena eskeintzen dizu!



## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

## ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91



**EZKONTZAK**

**Unai Miranda Berroeta** eta **Elena Garcia Campo**, Goizueta eta Donostia-ko, irailaren 7an.  
**Juan Jose Zubiri Sagastibeltza** eta **Idoia Arburua Lusarreta**, Leitzakoak, abuztuaren 3an.  
**Ignacio Campos Martin** eta **Jasone Barriola Aierdi**, Zizurkil eta Leitzakoa, irailaren 14an.  
**Alejandro Maylin Olaizola** eta **Elena Ezkurra Zunzarren**, Doneztebekoak, irailaren 14an.  
**Leoncio Irungarai Elizalde** eta **Miren Itziar Elizaintzin Oharriz**, Gartzaingoak, abuztuaren 31n.  
**Agustin Lusarreta Zarranz** eta **Ana Margarita Varea Murga**, Elizondokoak, irailaren 6an.  
**Jose Fermin Iturburua Zubieta** eta **M<sup>a</sup> Itziar Barberena Iribarnegarai**, Erratzukoak, irailaren 7an.  
**Agustin Aranbel Arraztoa** eta **Mirentxu Garbiñe Fernandez Aretxabala**, Elizondokoak, abuztuaren 31n.  
**Juan Esteban Etxegarai Mikelperizena** eta **M<sup>a</sup> Eugenia Aldabe Goienetxe**, Bera eta Zigakoa, abuztuaren 31n.  
**Alejandro Gomez Ordoki** eta **M<sup>a</sup> Aranzazu Garcia Calvo Martin**, Errenteria eta Donostiakoa, Lesakan, irailaren 7an.  
**Carlos Carpio Lablanca** eta **Irene Monica Lopez de Castro Garcia-Morato**, Madrilgoak, Arizkunen, abuztuaren 31n.  
**Pedro Pablo Roman Barranco** eta **M<sup>a</sup> Dolores Castellano Prats**, Zaragozakoak, Iruritan, irailaren 6an.  
**Marcos Azkarate Morales** eta **M<sup>a</sup> Elena Alvarez del Castillo**, Elizondo eta Madrilgoa, irailaren 14an.

**JAIOTZAK**

**Oihane Herrero Garcia**, Berakoa, abuztuaren 7an.  
**Mikel Esnaola Urkia**, Berakoa, abuztuaren 9an.  
**Ane Baraibar Arratibel**, Aresokoa, abuztuaren 19an.  
**Xabier Goldaraz Zestau**, Leitzakoa, abuztuaren 30ean.  
**Naroa Oiartzun Ugartemendia**, Leitzakoa, irailaren 6an.  
**Izaskun Iriarte Elizalde**, Narbartekoa, uztailearen 19an.  
**Iñigo Goienetxe Urrutia**, Amaiurkoa, irailaren 1ean.  
**Itsaso Aleman Saharrea**, Arizkungoa, abuztuaren 30ean.  
**Maialen Goñi Iribarren**, Elizondokoa, irailaren 2an.  
**Concepcion Isabel Aginaga Etxamendi**, Elizondokoa, irailaren 2an.  
**Iker Gamio Salaberri**, Arizkungoa, irailaren 8an.  
**Jose Antonio Santesteban Opoka**, Irurita, irailaren 11n.  
**Jaione Perurena Azkarraga**, Urdazubikoa, irailaren 8an.  
**Maialen Goienetxe**, Sarakoa, buruila-  
 ren 8an.  
**Andoni Etxebeste Irazoki**, Berakoa, irailaren 13an.  
**Amaia Goñi Gelbenzu**, Sunbillakoa, ekainaren 9an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**  
 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**  
 polit bat oparitzen diegu. Amendako  
 "Está creciendo" liburua daukagu.  
**IRUÑEKO KUTXA**  
Iruriko Lida Alabeko Kutxa

**HERIOTZAK**

**Andres Galarregi Oskariz**, Lesakan, irailaren 2an, 82 urte.  
**Barbara Zarranz Labariz**, Doneztebekoa, abuztuaren 31n, 95 urte.  
**Gloria Bera Martinez**, Legasakoa, uztailearen 30ean, 101 urte.  
**M<sup>a</sup> Concepcion Etxenike Laurnagarai**, Legasakoa, irailaren 7an, 93 urte.  
**Joaquina Iribarren Torres**, Arizkungoa, irailaren 9an, 83 urte.  
**M<sup>a</sup> Cruz Pierola Acedo**, Elizondon, irailaren 14an, 71 urte.  
**Antonio Fernandez Fernandez**, Elizondon, irailaren 14an, 71 urte.  
**Monica Lazkano Zia**, Almandozkoa, irailaren 17an, 85 urte.  
**Martina Bidart Larunbe**, Urdazubikoa, irailaren 7an, 90 urte.  
**Marcelle Bergara**, Sarakoa, buruila-  
 ren 12an, 76 urte.  
**Teresa Markina Ruiz**, Berakoa, irailaren 8an, 63 urte.  
**Jesusa Urtxegi Petirena**, Berakoa, irailaren 10ean, 89 urte.  
**Jesus M<sup>a</sup> Perez Caballero Zubillaga**, Beran, irailaren 13an, 26 urte.  
**Josefa Altzuguren Agirre**, Berakoa, irailaren 14an, 85 urte.  
**Candida Jorajuria**, Arantzakoa, irailaren 19an, 90 urte.



**MENGHINI AKORDEOIAK**

Gipuzkoarako Delegazio Ofiziala

**AKORDEOIAREN  
 GOI MAILAKO AKADEMIA**

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

Juan Arana 18, behea ezk.  
 Tfnoa eta Faxe: (943) 615055  
 20302 IRUN

DOMIÑENEA Etxea  
 San Andres 40  
 NARBARTE

**PIKABEA**  
*pinturak*  
 Molinero drogerian  
 galdetu

*Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio  
 arazoak moldatuko dizkizugu*

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**



## Jone Elgorriaga eta Izaro Ansa Nafarroako trikitilarien txapelkun

Jone Elgorriaga le-sakarrak eta Izaro Ansa aranoarrak osatutako bikoteak irabazi du aurtengo Nafarroako trikitilarien txapelketa, Altsasun irailaren 15ean burututako finalean nagusitu ondotik. Bigarren postua Etxarri Aranazko Mikel eta Iñaki Mundiñanok, orain arte burutu ziren bi edizioetako txapelkunek, alegia, eskuratu dute. Hirugarrenak Arbizu eta Etxarriko Irune Agirre eta Onditz Artieda gelditu ziren. Laugarrenak, desentzaren ondotik, Dani eta Ainara Narbarte goizuetarrak izan ziren, bortzgarrenak Iñaki Mendinueta eta Onditz Artieda, seigarrenak Berako Amaia eta Joseba Irastortza, zaz-



**Irabazleen kopa eta txapelaz gain, hamar mila duroko saria irabazi zuten Izaro Ansa eta Jone Elgorriagak** Argazkia: EGIN

pigarren Irune eta Patxi Zabala goizuetarrak eta zortzigarrenak, Le-

sakako Oihana Almandoz eta Jose M<sup>a</sup> Elgorriaga.

## Berako 'Erausian' Gazteen Euskara taldea logotipo bila

*Erausian* Berako gazteen euskara taldeak logotipo lehiaketa antolatatu du, Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin, Bortziritan jaio edo bertan bizi direnei zabaldua.

Logotipoaren neurria egilearen esku dago, kontutan hartuz neurri ttikietan erabiliko dela. Lanak DIN-A4 paperean aurkeztuko dira eta

nahi hainbertze kolore erabiliko dira.

Lanak urriaren 15a baino lehen bidali behar dira, gisa honetako lehiaketetan ohikoa den moduan, honako helbide honetara:

TTIPI-TTAPA aldizkaria  
Erausian logotipo lehiaketa  
Herriko Etxeko Plaza 1  
31780 BERA  
25.000 pezetako sari bakarra emanen da, Erau-

sian taldeko kideek eta Bortziritako Euskara Mankomunitateko zinegotzi batek osatutako epaimahaiak erabakitakoaren arabera.

Aitzinetik zenbait ekitaldi egin badituzte ere, *Erausian* euskara taldearen aurkezpena udazken honetarako iragarrita dago, sentsibilizazio kanpaina batekin batera.

## Akitania-Euskadi-Nafarroa Lankidetzaren Fondoa

Nafarroako Gobernuak, Akitania-Euskadi-Nafarroa Lankidetzaren Fondoari dagozkion 32 proiektuei 60 milioi pezetako laguntza ematea onartu du. Horietatik bitan eskualdeko elkarteek parte hartzen dute. Berako Gure Txokoak 600.000 pezeta jasoko ditu, Zugarramurdiko Akelarre, Azkaingo Altxa Lili eta Sarako Etxola elkarteekin batera egiten duen *Axuriatik Larrunerat* proiektua laguntzeko. Sunbillako Euskaltegiak (IKA) berriz, 805.000 pezeta Gure Irratiarekin batera antolatutako *Etxetik Plazara* irrati emanaldiak proiekturako.

## Kultur ekitaldiak antolatu ditu IKA euskalduntze erakundeak

Irailaren 30a arte luzatuko den 'Euskara lau haizetara' matrikulazio kanpainaren barnean zenbait ekitaldi antolatu dituzte Malerreka eta Bortziritako IKAKo euskaltegiek. Lesakako Kattu ostatuan, irailaren 26an Joxe Ripiau musika taldearen emanaldia izanen da gaueko 10,30etatik aitzinera. Berako Kultur Etxean, urriaren 5ean, arratseko 8etan, helduendako 'Umekeriak' antzeslana ikusteko aukera izanen da Joxe Ramon Soroiz aktorearekin. Narbarte trinketean, azkenik, urriaren 6an, arratseko 7etan bertso jaialdia izanen da Egaña, Lizaso, Sarasua eta Bittor Elizagoien bertsolariarekin.

## Bertso-paper lehiaketa zabaldu du Bortziritako bertso eskolak

Bortziriak, Baztan eta Malerrekako bertsozaleei zabalduetako bertso-paper lehiaketarako deialdia luzatu du Bortziritako bertso eskolak. 14 urte artekoek guttienez lau bertso eta gehienez sei egin behar dituzte gai librean, 14-18 urte artekoek guttienez sei eta gehienez zortzi eta 18tik aitzinerakoek guttienez zortzi eta gehienez hamabi. Lanak, ohiko sistema erabiliz, azaroaren 16a baino lehen egon behar dute helbide honetan:

*Bortziritako Bertso Eskola, Arrano Elkarte 31770 Lesaka*  
Sari banaketa Bortziritako Bertso Astearren egitarauaren barnean egingen da.



### SOULE

**GURUTZEAK  
HILARRIAK**

© 453038 ARIZKUN • © 123572 IRUÑA

### ttipi-ttapa

Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.  
Den-dena eskeintzen dizu!





## Juan Carlos Garro beratarra nagusitu zen Igantziko mendi bizikleta ibilaldian


Ondotik, Santi Iturbide, Patxi Irazoki eta Jose Mari Goia igantziarrak izan zituen irailaren 15eko proban

OSKAR TXOPERENA

Grisley taldeko Juan Carlos Garro beratarrak irabazi du aurtengo Igantziko mendi bizikleta ibilaldia. Bigarren aldia da proba honetan lehendabizikoa ailegatzeko dela, orain dela lau urte ere irabazi zuen eta.

Eguraldi ezin hobekoarekin ibili ziren izena ematera hurbildu ziren 120 txirrindulariak. Hasiera hasieratik gelditu zen bakarrik Garro, bere maila ikaragarria agerian utziaz berriz ere.

Beratarraren ondotik, denboraldi ederra egin duten hiru igantziar ibili ziren: Santi Iturbide, Patxi Irazoki eta Jose Mari Goia, aipatu bezala ailegatu zirelarik Garroren ondotik. Patxi Irazoki izan zen, bertalde, lehendabizikoa junicorra, maila honetan bigarren pos-



Orain lau urte bezala, aisa nagusitu zen Juan Carlos Garro beratarra Igantziko mendi bizikleta ibilaldiaren seigarren edizioan. Gibeletik, herriko hiru gazte izan zituen

Argazkia: Jose CANABAL

tua Asier Apezetxea arantzarrak eskuratuz.

Ondotik hameketa-koa, sari banaketa eta

tresnen zozketa izan ziren eguna nolabaitere borobilduz. Heldu den urtean tenore beretsuan

proba honen 7. edizioa izan dena prestatzeko asmoa agertu zuten antolatzaileek.

### Nafarroako X. Kirol Jokoetan izena emateko epea zabalik

Irailaren 16tik urriaren 4a arte zabalik dago Nafarroako X. Kirol Jokoetan izena emateko epea.

Izen ematea Elizondoko eskualdeko kirol bulegoan (581279 telefonoa, Elixabet) edo kirol federazioetan egin daiteke honako baldintza hauek betez: Taldearen datuak, kuota-fidantza ordaindutako justifikanteak aurkeztu, partehartzaile bakoitzaren ENAren edo Famili liburuaren fotokopia, partehartzaile bakoitzaren bi fotografi, fidantza itzultzeko klubaren kutzako zenbakia eta Federazioko Fitxak.

Areto-futbolearen edo saskibaloian aritzeko bertze zenbait baldintza bete behar dira. Informazio gehiago jasotzeko Baztango kirol koordinatzailearekin harremanetan paratu.

### HERRI KIROLAK

#### Inaxio Katarain Lakuntzarrak irabazi du Nafarroako hirugarren mailako aizkolari txapelketa

Irailaren 15ean burutu zen Belaskoainen Nafarroako 3. mailako aizkolari txapelketa.

Txapelketa honetan zortzi aizkolarik hartu behar zuten parte baina Lakuntzako Juanito Andueza federatu gabe aurkeztu eta ezin izan zuen parte hartu, hortaz zazpi izan ziren aritu zirenak. Aizkolarik bakoitzak 2 kanaerdiko eta 45 ontzako bertze bi enbor moztu behar zituen.

Lehenengo txandan honakoak aritu ziren: Jesus Manuel Otxandorena (Lezaun), Inaxio Luis (Lakuntza) eta Jose Mindegia (Beintza-Labaien). Txanda honetako irabazlea Otxandorena suertatu zen 12'03" denborarekin. Bigarren txandan Inaxio Katarain (Lakuntza), Rafael Untxalo (Ituren), Alberto Lakosta (Etxauri) eta Jose M<sup>a</sup> Baleztenak (Lakuntza) har-

Nafarroako hirugarren mailako aizkolari txapelketa				
	45"	54"	54"	45"
Inaxio Katarain	01' 26"	04' 54"	08' 06"	10' 44"
J. Manuel Otxandorena	01' 22"	04' 55"	08' 42"	12' 03"
Jose Antonio Mindegia	01' 53"	06' 59"	11' 54"	15' 06"
Rafael Untxalo	02' 29"	07' 04"	12' 07"	16' 11"
Inaxio Luis	02' 11"	07' 24"	13' 52"	17' 17"
Jose Mari Baleztena	02' 04'	07' 19"	13' 26"	17' 31"
Alberto Lakosta	02' 03"	06' 48"	14' 34"	18' 05"

tu zuten parte. Txanda honetako eta txapelketako irabazlea Inaxio Katarain izan zen, 10'

44" denborarekin.

Bertalde, iaz bezala, Arrospeide, Larretxea, Olasagasti, Nazabal, Pe-

ñarrikano eta Mindegiak jokatu dute Euskal Herriko 1. mailako txapelketaren finala.



# Felix Izeta Maisu Haundiak irabazi zuen Lesakako Nazioarteko III. Xake Irekia

Guztira 129 xakelari aritu ziren, horien artean Europako zenbait Nazioarteko Maisu eta Maisu Haundi

Irailaren 7an burutu zen Lesakako frontoian Lesakako Xake edo ajedrez Irekiaren hirugarren edizioa. Aurtengoa Partaidetza zabala eta kalitate haundikoa izan da. 129 xakelarien artean zeuden txapelketa eskuratu zuen Felix Izeta Maixu Haundia (Euskadi), Valentin Loukov Maixu Haundia (Bulgaria), Jesus de la Villa Nazioarteko Maisua (Nafarroa), Rafael Alvarez eta Juan Mari Gomez Euskadiko Nazioarteko Maisuak edo Euskadiko txapeldun hiru aldiz suertatu den Jesus M<sup>a</sup> Iruzubieta, bertzeak bertze. Kalitateko bertze jokalariek ere izan ziren Lesakan, horien artean izakoa bigarrena sailkatu zen Unai Garbisu nafarra, Alemaniako Thomas Huessman eta Errusiako Andrei Jaikin.



Argazkiaren ezkerrean ageri den Felix Izeta aisa nagusitu zen Lesakako Irekian

Herrikoei dagokiez, Manuel Reyes izan zen lehendabiziko lesakarra 83. postuan 3 punturekin. Lehen nafarra Jesus de la Villa Maisu Haundia izan zen, bigarren postua eskuratu baitzuen. Emakumeen

arte, Miriam Muñoz donostiarrak izan zen.

Epaile lanetan aritu ziren Javier Legasa eta Andoni Maritxalar lesakarrak, Joxemari Ramos, Enrique Oiertzal eta Ramon Etxeberriekin batera, guztiak

Juanjo Escribano Estatu Federazioko arbitroaren gidaritzapean.

Beti Gazte elkarteak, Lesakako Udala, CAN eta Nafarroako Xake Federazioaren laguntza izan du txapelketa hau antolatzeko.



## ❖ Miriam Blas

Berako txirindulariak Euskadiko Mendi Bizikleta Jeitsiera txapelketa irabazi zuen irailaren 7an, Bizkaiko Alonsotegi herrian burututako proban.

## ❖ Lezoko pilota txapelketa

Juantxo eta Joxeanton Apezetxeak irabazi zuten Lezoko pilota txapelketa, finalean Haritz eta Iparragirreri 22-19 irabazi ondotik. Pilotari onenaren saria Almandoz lesakarrak lortu zuen.

## ❖ Baztan futbol taldearen sari banaketa

Joan den urteko sariak banatu ziren Baztan futbol taldean. Goleatzaile onena Unai Meoki izan zen, jokalariregularrenari emandako saria Peio Apezetxeak jaso zuen eta Jose Luis Alzugaraik klubaren plaka hartu zuen.

## LAXOA

### Oitzko taldea Baztan-Errekako laxoa koparen txapeldun, finalean Arraiozi irabazi ondotik



Aurtengo laxoa kopa txapelketa Oitzen eskuetara joan da, irailaren 7ko finalean 9-4 irabazi baitzion Arraiozko taldeari. Oitztarrek bere herriko pilota plazan aritu zirela –bestetan gainera– probextu zuten. Halere, azken emaitzak erakusten duena baino borroka gogorragoa ikusi zen. Arraioz-tarrak ere ederki aritu ziren, baina momentu

erabakigarrietan zortea herrikoen alde egon zen.

Txapeldunen aldetik Bittor Anso (sakalaria), Bittor Zelaieta (numeroa) eta Alberto San Miguel eta Juan Mari Mingegiak (laurdenak) jokatu zuten. Arraioz defendatuz berriz, Xanti Iturralde, Luis Miguel Mortalena, Xabier Karrikaburu eta Jon Laurusagarai aritu ziren.

Jubenil mailako konpetizioa ere igande honetan bukatzekoa zen,

Irurita B eta Oitz taldeen artean jokatu behar zen finalarekin. Hauekin batera, Iruritako bertze talde batek eta Doneztebeko bik jokatu dute txapelketa.

Bertzalde, irailaren 15ean laxoa erakustaldia eskaini zuten Uztaritzen Oitz eta Arraiozko taldeek. Kopa txapelketako finalistak partidu ederra egin zuten eta pilota joku honen berri eman zuten Larrediko herri horretan.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



### Oitzko laxoa taldea.

Baztan-Errekako laxoa txapelketan ez zuten finalean sartzetik izan bainan kopan beraien maila erakutsi dute Bittor Anso, Bittor Zelaieta, Alberto San Miguel eta Juan Mari Mingegiak. Gibeletik, gainera, gogor eta gogoz heldu dira jubenilak.



### Baztan futbol talde nagusia.

Eskualdeko futbol taldeen artean maila gorenean dagoenak –Nafarroako Hirugarren mailan, alegia– ez du liga hasiera txukuna egin eta hiru partidu jokatu ondotik, ez daki oraindik zer den irabaztea. Altxa burua!



## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BESTAK

#### IGANTZI

► **Irailaren 27tik 30era** Xehetasunak 14-15 orrialdeetan.

#### URROTZ

► **Irailaren 26tik 30era** Xehetasunak 19. orrialdean.

#### ANIZ

► **Urriaren 5etik 8ra** Xehetasunak 23. orrialdean.

### SOLASALDIAK

#### ETXALAR

► **Urriaren 4ean** arratsaldeko 7etan Guatemalari buruzko solasaldia eta diapositiba emanaldia Eskola Zaharretan, Jon Sarasua, Amaia Antero eta Kontxita Erroren eskutik.

### ANTZERKIA

#### BERA

► **Urriaren 5ean** arratseko 8etan Kultur Etxean «Umekeriak» helduendako antzeslana.

### BERTSO SAIOAK

#### NARBARTE

► **Urriaren 6an** arratsaldeko 7etan trinketean Andoni Egaña, Xebastian Lizaso, Jon Sarasua eta Bittor Elizagoien. Antolatzailea: Malerrekako Euskaltea (IKA).

### OSPAKIZUNAK

#### BERA

► **Irailaren 29an** II. Dantzari Txiki Eguna. Xehetasunak 11. orrialdean.

### BASERRIA



#### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 6.500 - 6.600 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 214pzta/kilo
- **Zerramak**: 130-140 pzta./kilo bizirik.



#### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
  - **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal
- |       |       |     |
|-------|-------|-----|
| Extra | ..... | 520 |
| 1.koa | ..... | 490 |
| 2.koa | ..... | 470 |


- **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal
- |       |       |     |
|-------|-------|-----|
| Extra | ..... | 530 |
| 1.koa | ..... | 500 |
| 2.koa | ..... | 480 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
- **Nabarrak:** urruxak 18.000 eta idixkoak 23.000 Pzta.
- **Mestizoak:** urruxak 24.000 eta idixkoak 35.000 Pzta.

- **Behi zaharrak:**
- Behi nabar gizona: 340 Pzta./Kg. Kanal.
- Behi gorri ona: 380 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE



### HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

#### XVII. Artzai Zakur Lehiaketa Igantzin

Urriaren 5ean, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera burutuko da Meakaundi zelaian Igantziko Artzai Zakur Lehiaketaren hamazazpigarren edizioa. Besta Komisioari gogotuta hasi zen proba hau egiten orain hamazazpi urte, hasiera batean besten egitarauaren barnean. Gero, Oñatiko probaren ondoko igandean egiten hasi zen, hau da, San Migel bestak baino lehen. Aurten, ordea, bestak bukatu eta hurrengo igandean egingen dute.

Maila haundiko artzaiek irabazi dute Igantziko lehiaketa, bertzeak bertze Patxi Etxeberria amaiurtarrak, Jose Antonio Arrillaga edo Xabier Urienek.

## EUSKARA LAU HAIZETARA

Apunta zaitetz zure herriko Euskaltegian  
Irailaren 30a arte astia duzu.  
☎ 637796 Lesakan  
☎ 631105 Beran arratsaldez

Antolatzailea:  
Bortzirietako Euskaltea  
(IKA)



Irailaren 26a

Lesaka

**JOXE RIPIAU**




## JAKIN BEHARREKOAK

### Errutinara itzultzearen nekea nola gainditu?

Bukatu dira oporrak: lane-ra, ikasketetara edo, zernahi dela ere, eguneroko errutinara bueltatzea tokatzen da orain. Aldaketa honek sor diezaiguke depresiorik edo psikologi mailako arazorik. Ikus dezagun zein diren horiei aurre egiteko modu batzuk.

- **Mentalitatea aldatu.** Oporrak merezi dituzulako izan dituzula pentsatu. Lana edo ikasketak behar bat dira eta bere momentu onak ere izaten dituzte. Gogora itzazu eta baikortasunez hartu betiko errutinara itzultzea.
- Momentuaz goxatu eta ez denborari aurre hartu. Oporretan zaudenean oporretan zaude. **Lanean hastean, pozez lan egin!**
- Urtean zehar egun libreak hartu. **Egun bateko opo-**



Baikortasunez ekin behar zaio 'ikasturte' berriari

rrak edo zubiak probex-ten ahal dira. Urtaro ba-koitzak bere xarma du, ez udak bakarrik.

– **Ez utzi zure stressak haurrengan eragina izan dezan.** Beraiek ere aldaketak sumatzen dituzte: kurtso hasiera, irakasleak...

– **Etxekoandrea** bazara eta "berriz hasteak" nekea sortzen badizu, gogoratu gustura egiten dituzun gauzak eta horretan hasi. **Etxetik ateri, kapritxo batzuk**

eman zure buruari. Gauza berriak inprobisatu.

– Egunerokoa zein astuna den ez pentsatzeko modu bat okupatua egotea da. **Ez gelditu etxean.** Kirola edo ikastaroren bat egin ezazu. Masaia on bat, yoga, musika, meditazioa, pintura eta bertze hainbat ekintza egiteak lagunduko dizu.

EROSKI ALDIZKARITIK HARTUA

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KANTALDIAK

### ETXALAR

► **Urriaren 5ean** arratseko 8etan Eskola Zaharretan Gari kantariaren emanaldia. Antolatzailea: Etxalarko Euskara Batzordea.

### LESAKA

► **Irailaren 26an** gaueko 10,30etan, Kattu ostatuan 'Joxe Ripiau'. Antolatzailea: Bortzirietako Euskaltegia (IKA).

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

► **Irailaren 17tik urriaren 3artio** Jose Luis Mayor margolariaren pintura erakusketa Arizkunenean. Lanegunetan arratseko 7etatik 9etara.

### LESAKA

► **Irailaren 30etik urriaren 13ra** Bidasoako Trenari buruzko erakusketa egonen da ikusgai Beti Gazteren egoitzan. Bertizko Partzuergo Turistikoak antolatua da.

### LESAKA

► **Urriaren 4an** Bidasoako Trenaren historiari hitzeginen du Juan Jose Martinenak eta urriaren 11n gaur egungo egoeraren berri emanen du Mikel Albisuk. Biak ere, Beti Gazten izanen dira.

## GUARDIAKO BOTIKAK

► **Irailaren 23tik 29ra** Lesaka, Narbarre, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizuetan.



Giuseppe Lo Bartol

10'30etan  
Un  
sika tropikala.



Urriaren 5ean, arratseko 8etan Berako Kultur Etxean **UMEKERIAK** helduendako antzeslana Joxe Ramon Soroiz aktorearekin.



## HIGIEZINAK SALTZEKO

- 101. Etxeak
- 102. Etxebizitzak
- 103. Baserriak
- 104. Txaletak
- 105. Apartamentuak
- 106. Merkataritza-lokalak
- 107. Garajeak
- 108. Lurrak/orubeak

## HIGIEZINAK EROSTEKO

- 111. Etxeak
- 112. Etxebizitzak
- 113. Baserriak
- 114. Txaletak
- 115. Apartamentuak
- 116. Merkataritza-lokalak
- 117. Garajeak
- 118. Lurrak/orubeak

## ESKUALDATZEAK

- 121. Merkataritza-lokalak
- 122. Bertzelakoak
- 131. Etxeak

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-  
Iparraldetik 19-34-48

# 631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

## ERRENTAN HARTZEKO

- 132. Etxebizitzak
- 133. Baserriak
- 134. Merkataritza-lokalak
- 135. Lurrak/orubeak
- 136. Bertzelakoak
- 141. Etxeak

## ERRENTAN EMATEKO

- 142. Etxebizitzak

- 143. Baserriak
- 144. Merkataritza-lokalak
- 145. Lurrak/orubeak
- 146. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak

- 206. Osasun arlokoak
- 207. Mendi lanak
- 208. Gestoriak
- 209. Garraioak
- 210. Bertzelakoak

## LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

## IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

## MOTORRA

- 501. Saldu
- 502. Erosi
- 503. Tailerrak
- 504. Bertzelakoak

## ANIMALIAK

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Eman
- 604. Klinikak

## DENETARIK

- 701. Galdu/aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

- 801. Agurrak
- 802. Deialdiak

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 101 ETXEAK

**BERA.** Bi solairu eta lora-  
tegia duen etxea salgai ☎  
631422.

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 102 ETXEBIZITZAK

**LESAKA.** Pisua salgai An-  
toiu karrikan. Hiru logela,  
sukalde bat, bainugela bat  
eta egongela bat. ☎ 637810.

**ETXALAR.** Pisua salgai. 3  
logela, sukaldea, egongela,  
baunua eta trateroa. De-  
nak kanpoaldera ematen  
du eta bizitzera sartzeko  
moduan. ☎ 635146.

## HIGIEZINAK SALTZEKO

### 108 LURRAK/ORUBEAK

**SUNBILLA.** Terreno bat  
salgai herritik 400 metro-  
tara. ☎ 580228. Deitu  
eguerdi edo arratsetan,  
9etatik goiti.

## HIGIEZINAK EROSTEKO

### 113 BASERRIAK

**BAZTAN.** Borda erosiko  
nuke partikularretik parti-  
kularra. Inmobiliariarik ez.  
☎ 176577 (Andres).

## ESKUALDATZEAK

### 121 MERKATARITZA-LOKALAK

**BERA.** Atenditu ezinean

gabiltzanez, negozioa tran-  
pasatu nahi dugu. Legia ka-  
rrikan ☎ 631490.

## ERRENTAN EMATEKO

### 142 ETXEBIZITZAK

**DONOSTIA.** Egia auzoan  
ikasleentzat pisu bat erren-  
tan jarriko nuke. ☎  
943.291768 Pello. Egur-  
diko 12etatik aitzinera.

**IRUÑEA.** Urdazubiko Mo-  
nastegia izeneko karrikan  
ikasleentzat pisu bat erren-  
tan jarriko nuke. Hobe nes-  
kak. ☎ 630577.

## ERRENTAN EMATEKO

### 146 GARAJEAK

**LESAKA.** Albistur karrikan  
bi garaje plaza errentan  
emanen nituzke ☎ 637820.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

#### zimeldi

Pareta armarioak eta bereizte  
manparak ate irristatzaileekin  
**Obrarik gabe!!**

Zimeldi • LESAKA  
☎ 948-387017

## ZERBITZUAK

### 210 BERTZELAKOAK

- Klase guzietako kristalak
- Ispiluak
- 'CLIMALIT'
- Bidrierak
- Metakrilatoa

## BEIRA kristaldegia

**ORDUTEGIA:** 11etatik  
tetara eta 4etatik 6etara

Sara 2, gibelaldea  
Agerra Auzoa • BERA

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Emakume batek** ordu ba-  
tuz lan eginen luke etxe-  
ko lanetan edo haurrak zain-  
tzen, Lesaka inguruan. ☎

637363 (M<sup>o</sup> Carmen, ilu-  
nabarretan).

**Neska euskaldunak** etxe-  
ko lanak egin edo haurrak  
zainduko lituzke ☎ 637492.  
Amaia.

**Neska batek** haurrak zain-  
duko lituzke Leitzaan. ☎  
510552 (Estitxu).

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Neska bat** behar da Iru-  
ñean lan egiteko interna  
moduan. ☎ 225210.

**Kartelak,** buzoiratzeko pa-  
perak, bisita txartelak, Fak-  
tura taloia... egiten ditu-  
gu. ☎ 631188. Bulego or-  
duetan.

## IRAKASKUNTZA

### 401 ESKAINTZAK

**Flauta trabesera** klase par-  
tikularrik ematen ditu. ☎  
637732.



**Traspasa Eskualdaketa**

INTERESATUEK DEITU  
TELEFONO HAUTARA  
☎ 948.450100 (Aurtiz)  
☎ 943.399713 (Donostia)

San Miguel auzoa (Osasun Zentroaren ondoan)

**DONEZTEBE**



**IRAKASKUNTZA**

goziagarriak ☎ 451518-234830.

Renault Clio, NA-AC matrikuladuna salgai. ☎ 510558.

Rieju MR80 motoa salgai, egoera onean. ☎ 635196.

**MOTORRA**

**503 TAILERRAK**

**MENDAUR MOTOR**  
☎ 450333 • DONEZTEBE

Suzukiak egoera-prezio onean. FordEscort NA-Y, Renault 19D urte batekoa, Land Rover luze eta llaburrak. Tapizeriak garbitzen ditugu

**SAMPI ARAGON**  
Auoi

3 Mitsubitsi Labor 2.5.TD, Citroen Xantia, Ford Escort 1.4 5 atekoa, Seat Ibiza 1.2 5 atekoa, Opel Corsa D eta bi Seat Panda.  
☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

**GANIX**  
Tailerrak  
Iturilandeta, 9 • ☎ 630669 • BERA  
IBILGAILUEN MEKANIKA  
ETA ELEKTRIZITATEA  
FIAT Zerbitzua

**ANIMALIAK**

**601 SALDU**

Txakur Pekinesak salgai. ☎ 631218 Pili. Arratsetan deitu.

Ahari mutur gorria eta adarrik gabea salgai. ☎ 397039.Leitza.

Sei hilabeteko ardi-zakur arra salgai. ☎ 514168.

Basurde ehizirako 5 zakur salgai. ☎ 393099.

Txakurkumea salgai. Espainiar-Bretoi arrazakoa, pedigriduna. Oso ona ehi-zarako eta muestra egiten. ☎ 948.725574. Lan orduetan 948.301102.



# ADOS

## INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

**BERA.**  
- 110 m<sup>2</sup>ko pisu zoragarria salgai. Kanpoaldera ematen du eta prest dago sartzeko.  
- Pisu bat erosi nahi da.  
- Etxe zoragarri bat salgai.

**LESAKA.**  
- Baserri edo borda erosi nahi da.

**ZIGAUURRE (ZIGA).**  
- Jauregi-etxea salgai. 15.000 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.

**IRURITA.**  
- 140 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai, 400 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- 350 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai, 200 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.

**ELIZONDO.**  
- Pisu haundi bat salgai.  
- Pisu bat errentan emateko prest.  
- Bajera batzuk salgai.  
- Bajera haundi bat errentan emateko prest.  
- 400 m<sup>2</sup>ko bajera bat salgai.

**OITZ.**  
- Txaleta salgai: bi solairu, ganbara, garajea eta 2.600 m<sup>2</sup>ko eremua.

**ZUBIETA.**  
- Borda edo baserria erosi nahi da.

**DONAMARIA.**  
- Txalet bat salgai.

**DONEZTEBE.**  
- Pisu batzui errentan emateko prest.  
- Pisu batzuk salgai.  
- Pisu bat erosi nahi da.

**ELGORRIAGA.**  
- Pisu salgai.  
- Etxe polit bat salgai.  
- 3.000 m<sup>2</sup>ko eremua salgai.  
- Etxe bat salgai.

**ITUREN.**  
- Etxe eder bat salgai.  
- Etxea egiteko lur eremua salgai.

PREMIAZKOAK

- Baserri edo etxea behar dugu zahar-berritzeko. Tokiak ez du inporta.
- Lur eremu pixka bat behar da. Malerrekan posible bada hobea.
- Malerrekan borda erosiko nuke.
- Baztanen borda erosiko genuke.
- Bortzirietan baserri edo borda erosiko genuke.
- Bortzirietan lur-eremua landareak jartzeko.

**Edozein klasetako kontratuak egiten ditugu. Zerbait nahi izanez gero, deiguzu konpromezurik gabe.**

Telefonoak: 451841 / 908.778653  
Parrokia, 5-2. ezk. • DONEZTEBE

**402 AKADEMIAK**



ENGLISH ACADEMY

Elizagibela, 7 Behea • ☎ 45 01 02

**DONEZTEBE**

**Ingelesa ikasteko modurik errax eta atseginena**

Irakasle amerikarra, multimedia-ordenagailuak, bidoteka, etabar.

96-97 ikasturterako matrikula zabalik

**MOTORRA**

**501 SALDU**

BOB-CAT makina salgai, retroa, zulagailu hidraulikoa eta pala dituen. Ia-ia berria dago. ☎ 580109. Deitu bulego orduetan.

Renault 11 Diesela salgai. NA-P. ☎ 631018.

Peugeot 306 turbo-diesela, NA-AP matrikuladuna, salgai. ☎ 510558.

Gilera Dakota 500 motoa salgai, Trailekoa. 13.000 km. Arras ongi dago. ☎ 634185. Gaez deitu.

Vespa NA-W salgai. 200 cc. eta beix kolorekoa. ☎ 631193. Gauetan.

Pegaso Iveco kamioneta salgai. NA-AF. Animalia garaiorako prestatua. 4 urte, 65.000 km. 2.850.000 ne-

ttipi-ttapa

Gida Komertziala 96



Elektrizista baten bila zabilta? Gida honetan topatuko dituzu inguruko guztien telefonoak.

**ANIMALIAK**

**603 EMAN**

Bi hilabeteko txakurkumeak opariturako nituzke. Ama arras artzain ona dute. ☎ 610689.

Artzai zakurkumeak opariturako nituzke. ☎ 630766.

Zezen bat 8 urtekoa, Piri-naikoa, mendian ongi ibiltzen dena, salgai Leitza. ☎ 510303.

Ardi txakurkumeak salgai. ☎ 604624.

Mendiko 12 behi salgai, 8 deretxorekin. Prezio interesgarria. ☎ 510167. Jesus M<sup>a</sup>

Ardi-zakurkumeak salgai. ☎ 604624.

**DENETARIK**

**701 GALDU/AURKITUAK**

Betaurreko batzuk aurkitu dira Berako Zia auzoan, baserri baten ondoan. ☎ 630116.

Betaurreko batzuk, graduatuak, agertu dira Lesakan. ☎ 627514.

Urrezko eratzuna aurkitu da Zugarramurdi agorri-laren 31n. ☎ 599009.

Eratzun bat galdu da Eratsunen, irailaren 7an (larunbata), Estitxu izenare-



kin. ☎ 510552.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Master System 2** bideo jokua salgai, 5 bideo jokurekin. ☎ 510274. Iker.

**Panasonic 61** bideo kamera salgai, osagarriekin. 60.000 Pta. ☎ 627643.

**Donezteben armairu** bat salgai. Bi metro zabal, bi ispilu erdian eta behean kajoak. ☎ 451782.

**Tornoa** salgai, Innovator T4 markakoa. ☎ 504479  
Gauko 10etatik gora.

**Kalefakzio-galdara**, egurrarekin dabilena, salgai. la berria eta merkea ☎ 631193. Arratsetan deitu.

**Sagardoa** egiteko pren-

**tsa** (300 litrokoa) salgai, es-treinatu gabekoa. ☎ 943. 621156 (gauko 9etatik 10etara).

**Mega Drive** bideo jokurako 'Fifa Soccer 96' kartu-txo jokoa salgai. Erabili ga-bea. ☎ 637879.

**Vaporetto New** konpletoa salgai. Garraiorako poltsa-rekin eta nola dabilen era-kusten duen bideoa. ☎ 637879.

**Sharp bideo kamara** (VLC 650S modeloa) salgai. Ga-rraiorako poltsarekin. ☎ 637879.

**Behi-esne kupoa** (10.476 kilokoa) salgai. ☎ 387087 (eguerdi edo arratsetan).

**Esnea hozteko tankea** sal-gai, 250 litrokoa, berri-be-rria. ☎ 580589.

**Belarra higitzeko makina** eta belarra biltzeko ma-

**kina**, biak traktorearekin ibiltzeko, salgai. ☎ 580589.

**Bigarren eskuko trikiti-xa** erosiko nuke. Si be-mol. ☎ 630421.

**Telebista** salgai, Grundig markakoa, 25". ☎ 637217.

## DENETARIK

### 703 BERTZELAKOAK

**Berako neska** batek la-gun bat behar du Iruñean pisua osatzeko. ☎ 630694. Beatriz. Eguerditan.

**Neska bat behar da** pisua osatzeko Barañainen. ☎ 637447.

**Barañaingo pisu** batean lagun batentzat lekua daukagu. Interesatzen bazai-zu deitu ☎ 610806 edo 510204.

Iruñean mutil edo neska

bat behar da pisua osa-tzeko. ☎ 631089. Arratse-tan edo 615054.

**Bi lagun behar** ditugu Ba-rañainen pisu bat osatzeko (irailetik ekainera). ☎ 610806 Zizi.

**Iruñean pisua** osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 397003.

**Madriren** (Alcala de He-nares) pisu bat osatzeko ikasleak behar dira. ☎ 581068 Idoia.

**Bortzirietan** janari mani-pulatzaile karneta atera nahi duten guztiek lehen-bailehen izena eman dez-atela Lesakako Izarra okindegian (☎ 637855) edo Kattu ostatuan (☎ 627573).

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**Berako** Ainhoa Azkarragari: zutaz maitemindua nago. G.

**I.L. eta bere neskari**: zo-riorenak irailaren 23an bi ur-te elkarrekin bete dituzue-lako. Zuek dakizuen biko-te baten partez.

**Lesakako** Mikel eta Iker-rrentzat muxu haundi bat zuen urtebetetzean, ama-uxi eta atautxi, Serapio eta Nievesen partez.

**Paratu lentejak** uretan, berehala nator eta. Gau-txori.

## URTEBETETZEAK

**Sail hau dohanekoa da.**  
Norbait zoriondu nahi baldin baduzu,  
bidali bere argazkia eta datuak  
helbide honetara:

**ttipi-ttapa**  
Urtebetetzeak Sailerako  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA



**Marta Iturria Almandoz** arantzarrak irailaren 28an beteko ditu 20 urte. Zorionak maja!



**Iker Telletxea Anzizar** lesakarrak urriaren 5ean beteko ditu 5 urte. Tantarumairu ikastolan ikasten du. Muxu bat aita, ama eta Aritzen partez.



**Mikel Telletxea Anzizar** lesakarrak irailaren 26an beteko du urtea. Zorionak familia, lehenegusia, Sevita eta Josuneren partez. Muxu haundi bat.



**Mikel telletxea Zamora** lesakarrak irailaren 20an bete ditu 7 urte. Irain eskolan 2. maila ikasten du.



**Iñaki Tomasena Losada** etxalartarrak irailaren 28an beteko ditu 3 urte. Zorionak etxekoan partez.



**Zaira Latasa Oteiza** elizondarrak irailaren 29an beteko ditu 10 urte. Guraso eta Iruritako familiaren partez zorionak eta kontuz pastelarekin.



**Nagore Arretxea** beratarrak irailaren 19an beteko ditu 15 urte. Toki Ona Institutuan 2. IEE ari da egiten. Zorionak NARBARTO lagunaren partez.



**Ibai Alcalde Etxepare** lesakarrak urriaren 1ean beteko ditu 9 urte. Irain eskolan ikasten du.



**Amaia Telletxea Mendigutxia** lesakarrak urriaren 7an beteko ditu 3 urte. Zorionak!



**Jose Luis Telletxea Maia** beratarrak irailaren 28an beteko ditu 35 urte. Zorionak lagunari eta familiaren partez. Animo!



**Unai Graziarena Hualde** doneztebarrak irailaren 22an bete ditu 4 urte. Zorionak.



**Maider Susperregi** lesakarrak urriaren 8an beteko ditu 22 urte. Koxkillako lagunak.



**Nahia Irigoien Perez** etxalartarrak irailaren 28an beteko ditu 4 urte. Zorionak eta aunitz urtez!



**Javier Zubieta** lesakarrak urriaren 7an beteko ditu 22 urte.



**BENTA-BERRI**

**LARRVAREN ETXEA**

Ibardingoa Gaiña • ☎ 948.63 07 08 • BERA

**EGUNERO  
IREKIA  
DUGU**

**BAITA LARUNBAT  
ETA IGANDETAN ERE**

goizeko 9,30etatik  
arratsaldeko 7ak arte

**Larruzko arropak eta osagarriak**

**Goi mailako kalitatea eta  
aukerarik zabalena  
hementxe bertan**

Galtzak	20.000 - 25.000 Ptatan.
Txaketak eta Berokiak	30.000 - 75.000 Ptatan.
Boltsak	2.500 - 12.500 Ptatan.
Bidai-boltsak	5.000 - 6.000 Ptatan.
Gerrikoak	1.500 - 3.000 Ptatan.
Karterak	500 - 6.000 Ptatan.
Eskularruak	2.500 - 5.000 Ptatan.



# SAMPI ARAGON



Golf



Caddy

**Hementxe ditugu 1997ko modeloak**  
**Ekipamendu hobea prezio berdinean**

**TXAPA eta PINTURA  
MEKANIKA**

**ELEKTRIZIDADEA  
GARBITZAILE AUTOMATIKOA**

*Grua zerbitzua 24 ordutan*

Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759 • **DONEZTEBE**



# HEMENTXE GAUDE !!



LARUNBATA, URRIAK 5 LEHEN EGUNA

## NAHI TA NAHIEZ

LARUNBATA

12

## DISKOTEKA

(SARRERA DOHAINIK)

LARUNBATA

19

## EGAN

LARUNBATA

26

## JOSELV ANAYAK



DONEZTEBE

# BORDATYO



NAFARROA

## LARUNBAT GAUEKO MARTXA